

## BITARTEKO JARRAIPEN-TXOSTENA

2019

**Gobernantza** eta  
Berrikuntza **Publikoko 2020**  
Plan Estrategikoa

Plan Estratégico de  
**Gobernanza** e Innovación  
**Pública 2020**



*GOBERNANTZA ETA BERRIKUNTZA*  
*PUBLIKOKO 2020 PLAN ESTRATEGIKOA*  
**BITARTEKO JARRAIPEN-TXOSTENA**



## Aurkibidea

Aurkibidea .....	3
Sarrera.....	5
PEGIP 2020ren ikuspegi orokorra, aurrerapenak eta mugak .....	10
1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea .....	10
2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna .....	12
3. ardatza. Herritarrekiko harremanak.....	13
4. ardatza. Integritatea edo Zintzotasuna .....	16
5. ardatza. Berrikuntza .....	17
6. ardatza. Kudeaketa aurreratua. ....	19
Antolaketaren egokitzapena .....	19
Eraldaketa digitala .....	22
Aurrerabide .....	25
Administrazioarteko lankidetz.....	26
Pertsonak.....	28
Helburu estrategikoen eta ardatzen araberako jarraipena.....	32
1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea .....	34
1. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Gardentasuna eta parte-hartzea .....	35
1. ardatzaren helburuak. Gardentasuna eta parte-hartzea .....	36
Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak 1. ardatzeko proiektuetan Gardentasuna eta parte-hartzea .....	36
1. ardatzeko adierazleak: Gardentasuna eta parte-hartzea.....	38
2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna .....	40
2. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Plangintza estrategiko adimenduna .....	41
2. ardatzaren helburuak. Plangintza estrategiko adimenduna .....	42
Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak 2. ardatzeko proiektuetan Plangintza estrategiko adimenduna.....	42
2. ardatzeko adierazleak: Plangintza estrategiko adimenduna.....	44
3. ardatza. Herritarrekiko harremanak.....	45
3. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Herritarrekiko harremanak.....	46
3. ardatzaren helburuak. Herritarrekiko harremanak.....	47
Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak 3. ardatzeko proiektuetan Herritarrekiko harremanak .....	47
3. ardatzeko adierazleak: Herritarrekiko harremanak .....	51



4. ardatza. Integritatea edo Zintzotasuna .....	53
4. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Integritatea edo Zintzotasuna .....	54
4. ardatzaren helburuak. Integritatea edo Zintzotasuna .....	55
Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak ardatzeko proiektuetan.....	55
4. ardatzeko adierazleak: Integritatea edo Zintzotasuna .....	57
5. ardatza. Berrikuntza .....	58
5. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Berrikuntza.....	59
5. ardatzaren helburuak. Berrikuntza.....	60
Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak ardatzeko proiektuetan.....	60
5. ardatzeko adierazleak: Berrikuntza .....	63
6. ardatza. Kudeaketa aurreratua .....	64
6. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Kudeaketa aurreratua .....	65
6. ardatzaren helburuak. Kudeaketa aurreratua .....	67
Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak ardatz honetan .....	69
Antolaketaren egokitzapena .....	69
Eraldaketa digitala .....	73
Aurrerabide .....	76
Administrazioarteko lankidetz.....	76
Pertsonak.....	78
6. ardatzeko adierazleak: Kudeaketa aurreratua .....	82
<b>PEGIP 2020-KO PROIEKTUEN EGIKARITZE-EGOERAREN LABURPEN OROKORRA ETA BALORAZIOA</b>	<b>86</b>



## Sarrera

*Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2017-2020 Plan Estrategikoaren (PEGIP 2020)* arabera, 2019ko urtarrilean bitarteko ebaluazio-txosten bat egin behar da. Bertan, lortutako emaitzen eta ezarritako helburuen betetze-mailaren berri eman behar da, *PEGIP 2020an* deskribatutako aginte-aulan eta adierazle-sisteman oinarrituta.

Bitarteko txostenean emaitzak ebaluatuko dira, eta planean aurreikusitako azken txostenean, aldiz, inpaktua ere ebaluatuko da. Nolanahi ere, egiten ari diren aurrerapenen balorazioa eman behar da, plana betearazteko orduan egondako hutsuneak edo atzerapenak eta horien arrazoiak identifikatu behar dira, eta, hala badagokio, aldi horretan *PEGIP 2020* inguruan egon diren aldaketetara egokitzeko erabakiak hartzeko erraztasunak jarri behar dira.


Gobernu Kontseiluaren 2017ko urtarrilaren 17ko Erabakiak xedatutakoaren arabera, txosten hauek egingo dira *PEGIP 2020*ren jarraipenari eta ebaluazioari buruz:

- **Urteko jarraipen-txostena** hurrengo urteko urtarrilean, planaren betetze-maila neurtzeko.
- **Bitarteko ebaluazio-txostena.**
- **Amaierako ebaluazio-txostena** 2021eko urtarrilean.

Txosten horietan azalduko dira lortutako emaitzak eta ezarritako helburuen betetze-maila, oinarritzat hartuta adierazle-sistema eta aginte-koadro bat, gero beste apartatu batean deskribatzen direnak. Urteko txostenen eta bitartekoen irismena emaitzen ebaluazioa izango da, eta amaierako txostenean inpaktuaren ebaluazioa ere sartuko da.

Txosten honen bidez, Planaren jarraipenari buruzko bitarteko ebaluazio-txostena argitaratzeko konpromisoari erantzun nahi zaio; hau da, aipatutako konpromisoei.

*PEGIP 2020*ren **antolaketa-eredua** plana gauzatzeaz arduratzen den proiektu-taldeez dago osatuta, bai eta Plana zuzentzeaz, koordinatzeaz, horren jarraipena egiteaz eta eguneratzeaz arduratzen diren zenbait organoz ere.



Zuzendaritza-, koordinazio- eta jarraipen-organoak honako hauek dira:

- Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea.
- Sailarteko Batzordea.
- Planaren Talde Teknikoa.

Organo horietako bakoitzaren **osaera eta erantzukizunak** honako taula hauetan deskribatu dira:

Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea	
Kideak	Funtzioak
<ul style="list-style-type: none"><li>– Erakunde Harremanetarako sailburuordea</li><li>– Araubide Juridikoaren sailburuordea</li><li>– Funtzio Publikoko sailburuordea</li><li>– Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuen sailburuordea</li><li>– Kontrol Ekonomikoko Bulegoko (KEB) zuzendaria</li><li>– Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko (DACIMA) zuzendaria</li><li>– Funtzio Publikoko zuzendaria</li><li>– Gobernu Irekiaren zuzendaria (Lehendakaritza)</li><li>– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu-zuzendaria</li><li>– Koordinazioko zuzendaria</li><li>– Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria</li><li>– Aurrekontuen zuzendaria</li><li>– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Komunikazio-aholkularia</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>– Plana bultzatzea eta jarraipena egitea</li><li>– Jarduteko estrategiak definitzea</li><li>– Gatazkarik bada, ebaztea, eta gorabeherak kudeatzea</li><li>– Mugarriak eta emangarriak onartzea</li><li>– Planaren alderdi guztiak koordinatzea</li></ul>



Sailarteko Batzordea	
Kideak	Funtzioak
<p><b>Lehendakaria:</b> Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako sailburuordea.</p> <p><b>Batzordekideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria, edo gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren alorrean eskumena duen organoaren burua.</li><li>– Lehendakartzako Zerbitzu-zuzendaria, edo Lehendakartzan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu-zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Zerbitzu-zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Zerbitzu-zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzu-zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerbitzu-zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Hezkuntza Saileko Kabinete eta Komunikazioko zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Osasuneko sailburuaren Kabineteko zuzendaria, edo Osasun Sailean eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Kabineteko eta Komunikazioko zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li><li>– Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li></ul>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Gobernantzaren, gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren alorreko plangintza zuzendaria ezartzea.</li><li>2. Publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloan jarraibideak, protokoloak eta jarduteko irizpideak proposatzea, batzordea atxikita dagoen saileko titularrak Gobernu Kontseiluari onartzeko proposa diezazkion.</li><li>3. Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian jasotako konpromisoak zabal daitezen bultzatzea.</li><li>4. Elkarlaneko eta kontuak emateko ikuspegia duten politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa bultzatzea, era horretako politika eta zerbitzuek izan dituzten emaitzei eta eraginei buruz.</li><li>5. Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek indarrean dagoen araudiak publizitate aktiboari buruz ezartzen dituen betebeharrak beteko dituztela bermatzeko nahitaezko zereginak koordinatzea.</li><li>6. Nazioarteko gardentasunaren adierazleetan lidergoa sendotzeko beharrezkoak diren jarduerak bultzatzea.</li><li>7. Informazio publikoa eskuratzeko eskaeren izapideak koordinatzea eta jarraipena egitea, ahalik eta azkarren eta kalitatez erantzungo zaiela bermatzeko.</li><li>8. Informazio publikoa kudeatzeko eta argitaratzeko bitartekoak, plataformak eta garapen informatikoak erabil daitezen sustatzea.</li><li>9. Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, gardentasuna ezartzeari buruzko balantzeen urteko txostenak kontuan hartzea.</li></ol> <p><b>PEGIP 2020</b>an Batzorde horrek hauek zainduko ditu berariaz:</p>



<ul style="list-style-type: none"> <li>– Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li> <li>– Lan eta Justizia Saileko Zerbitzu-zuzendaria, edo sail horretan eginkizun horizontal edo transbertsalak dituen organoaren burua.</li> </ul> <p><b>Idazkari</b>-lanak Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako funtzionario batek egingo ditu, eta gobernantza, gardentasun eta herritarren partaidetzan espezializatua izan behar du. Zuzendaritza horretako zuzendariak izendatuko du, eta bileretan ahotsa bai baina ez du botorik izango.</p> <p>Batzordeak <b>teknikari batzuk izango ditu laguntzaile</b>, gobernantza, gardentasun eta herritarren partaidetzan espezializatuak, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzakoak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Proiektuaren barne-komunikazioa ziurtatzea.</li> <li>– Proiektua sailetan hedatzea erraztea.</li> <li>– Sailtako agenteen elkarlana koordinatzea.</li> <li>– Jarduera-arloen arteko sinergia posibleak baliatzea.</li> </ul>
--	---

Planaren talde teknikoa	
Kideak	Funtzioak
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako proiektuen arduraduna.</li> <li>– <i>Zuzenean</i> zerbitzuaren arduraduna.</li> <li>– Berrikuntza Publikoaren Laguntza Unitatearen (USIP) arduraduna.</li> <li>– Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuaren arduraduna.</li> <li>– Funtzio Publikoko teknikaria.</li> <li>– Gobernantza Publiko eta Administrazio Elektronikoko Aholkularitza Juridikoaren arduraduna (sortu eta betetzen bada proposatutako postu-mota).</li> <li>– Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria.</li> <li>– Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako teknikaria.</li> <li>– Aurrekontu Zuzendaritzako teknikaria.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Planaren alderdi teknikoen koordinazioa eta jarraipena garatzea.</li> <li>– Planaren jarraipen- eta ebaluazio-txostenak egitea.</li> <li>– Planaren jarraipen operatiboari dagozkion edukiak egitea eta jarduerak kudeatzea.</li> <li>– Lantaldeen bateratze-lana gauzatzea.</li> </ul>





Gainera, planeko **proiektu bakoitzak bere talde espezifikoa** izango du. Proiektuan esku hartzen duten arloetako eta proiektuen eraginpeko arloetako ordezkariak parte hartuko dute horietan, proiektuaren koordinazioa eta gauzatze egokia bermatzeko haren ezarpen-eremu guztietan.



# PEGIP 2020ren ikuspegi orokorra, aurrerapenak eta mugak

## 1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea

Ardatz honek zerikusia dauka **gobernu ona bultzatzearekin**, hots, boterea balio publikoa sortzeko erabiltzeko modu batekin, bere politiken eta zerbitzuen efizientzian, gardentasunean, kontuak ematean, herritar antolatuen eta ez antolatuen parte-hartzean eta elkarlan publiko-pribaturako eta administrazioen arteko elkarlanerako formula berrien sustapenean oinarrituta. Gobernu ona bultzatzeak erakusten du irmotasuna dagoela dauden baliabideak garapen ekonomiko eta sozialaren alde erabiltzeko, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik.

Gobernu onak **lege-esparru** bat behar du, boterea betetzeko moduan ordena berri bat ezartzen laguntzeko eta administrazioaren kultura berriaren oinarriak garatzeko. 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, autonomia-erkidegoei aplikatzen zaie, baina ematen duen esparrua ez da nahikoa gardentasunaren arloan, eta ez du ezer arautzen herritarren parte-hartzearen, ez politika eta zerbitzu publikoen efizientziaren arloan.

Alor honetan, *PEGIP 2020*ren testuinguruan, 2017ko uztailean, **Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege-proposamena** aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdiek Eusko Legebiltzarrean. Zuzenketak egiteko epea itxi da, ponentziak zenbait bilera egin ditu, eta ekimena martxan dago oraindik.

Ardatz honetan funtsezko proiektu-ildoetako bat da, era berean, **gardentasuna sustatzea eta kontuak ematea bultzatzea**, publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzeko bermeen bidez.

Alor honetan, GARDENA gardentasun-atariaren diseinu berriaren prototipoa egin da: irudi berria, kontakizunak, grafikoak eta bisualizazioak.

Arlo honetan, *PEGIP 2020*ren beste helburuetako bat zen Espainiako Nazioarteko Gardentasuneko eta beste ebaluazio-organo batzuetako gardentasun-ebaluazioetan lehen postuak eskuratzea. Aldi honetan ez denez kanpoko ebaluaziorik egin, **nazioarteko gardentasun-eskalan 2016an lortu zen lidergoari eutsi zaio**.

Halaber, koordinazio-bilerak egin eta harreman etengabea eduki da **Gardentasunerako Sailarteko Batzordearekin**, gardentasunerako eta herritarren partaidetzarako neurriak jorratzeko modua homogeneizatze aldera.



Gardentasunerako eta gobernu irekirako estatuko eta nazioarteko organoetara joateaz gain, nabarmentzekoa da **Euskadiren hautagaitza aurkeztu dela Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren kide izateko, eta garaile atera dela deialdi horretan, sarearen munduko 15 eskualdeetako bat denez gero.** <http://www.ogp.euskadi.eus/ogp-euskadin/-/euskadiko-ogpren-hautagaitza/>

**Datu publikoak ireki eta datu publikoen berrerabilera sustatzeari dagokionez (Open data Euskadi)**, eta, hala, euskal gizartearen zerbitzu publiko edo pribatu berrien eskaintzan laguntzeko, lan handia egin dugu datuak askatzen, datuak ustiatzeko ahalmen handia daukaten sektoreetan (osasuna, hezkuntza, industria eta abar). Halaber, beste datu batzuekin ere aritu gara lanean, beren trataera grafikoak nahiz berariazko ustiapenek herritarren artean gizarte-beharrizan eta -arazorik larrienei eta politikak eta zerbitzu publikoak haiek asetzeko duten benetako inpaktuari buruzko iritzia eratzten laguntzen badute, kontuak ematearen ikuspegitik.

Eremu honetako aurrerapenen artean, honako hauek nabarmentzekoak dira:

- Vitoria-Gasteizko Udaleko datuen federazioa
- Open Linked Data proiektuaren garapena
- Elkarlan Sariak: Open Data kulturaren sustapena
- Open App-en sustapena: aplikazio irekiak katalogoan
- Open Linked Data azpiegituraren ezarpena (SPARQL, etab.)
- ELI proiektuaren ezarpena
- Bizkaiko Foru Aldundiko federazioa
- "Euskalmet: Datuak ireki eta webgunea birdiseinatzea" izeneko proiektuaren hasiera
- "Pertsona, erakunde eta ekipamenduen direktorioa" izeneko proiektuaren hasiera
- "Datuak ikusarazteko atari berria" izeneko proiektuaren hasiera
- Datu irekien lehiaketak (7 euskal administrazioen artean)
- OGP proiektuaren hasiera

Herritarren parte-hartzearen eremuan, aurrera egin da **Euskadiko Demokrasiari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria** hedatzeko orduan. 2014an onartutako liburu horretan, kolektibotik arlo publikoa eraikitzeko orduan aurrera egiteko kontzeptuak, printzipioak eta konpromisoak adostu ziren. Eremu honetan, honako ekintza hauek azpimarratu behar dira:

- Elkarlan sariak esleitu dira 2017an eta 2018an.
- Lankidetzazko negoziazioaren gaineko prestakuntza eman zaie Eusko Jaurlaritzako langileei, taldeetan eta lankidetzazko beharrezanetan eraginik.



- Parte-hartzeko prozesuak sustatu dira Eusko Jaurlaritzan: 4/2005 berdintasun-legearen partaidetzako ebaluazioa; zientzia herritarra-Bid Rex Interreg Europe; Plataforma parte-hartzailea etxebizitzaren euskal behatokian; lurraldea antolatzeke zuzentarauen berrikuspena; Bherria. <http://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna-orokorra/-/gardentasun-herritarren-parte-hartze-eta-gobernu-onerako-tresnak/>

## 2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna

Ardatz honetako helburu nagusietako bat da aurrera egitea herrialdearen erronkei era sistematikoan heltzea ahalbidetuko duen **Plangintza Estrategiko** bat garatzeko bidean, behar diren baliabide guztiak integratuta erantzun eraginkor eta efizientea emateko. Horretarako:

1. Antolamenduaren, egituraren eta prozeduren arloetan neurri egokiak ezartzea plangintza estrategiko adimenduna (hau da, ebaluatzen den plangintza estrategikoa) epe luzera mantendu ahal izateko, herritarrek parte hartzen dutela eta erakundeek beren artean eta erakunde barruan lankidetzan dihardutela.
2. Prozedura eta protokolo egokiak ezartzea kudeaketa helburuen arabera egiteko eta plangintza emaitzetara eta eraginetara bideratzeko.
3. Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoak hobetzea, bai edukia, bai izapideak egiteko plataforma elektronikoa egin daitezkeen izapideen prozedura, lan-fluxuak eta ardurak zehaztuz.
4. Plangintza estrategikoa aurrekontuen eta ekonomiaren plangintzarekin lotzea.
5. Plangintza errazten duten ereduak eta tresnak prestatzea

Ardatz honetan, **emaitza eta inpaktuetara bideratutako aurrekontu estrategikoak** ezarri nahi dira herritarren beharrezanetan; urte anitzeko aurrekontuak, beharrezko aktiboak eta baliabide ekonomikoak plangintza estrategikoarekin uztartu eta bateratzeko, eraginkortasunez eta efizientziaz; hartara, herriaren erronkak modu sistematikoan jorratuko dira, hauen bitartez:

1. Antolamenduaren, egituraren eta prozeduren arloetan neurri egokiak ezartzea, emaitzetara eta inpaktuetara bideratutako aurrekontuen plangintza eta helburuen araberrako kudeaketa epe luzera mantendu ahal izateko.
2. Aurrekontuen eta ekonomiaren plangintza plangintza estrategikoarekin lotzea.

Hala bada, "*Politika publikoen eta ekonomia eta aurrekontuko esparruaren strategiari eta garapenari buruzko dokumentua*" egin da.

Azkenik, kultura planifikatzailea eta ebaluatzailea zeharka instituzionalizatu behar da. Horretarako, **esku-hartze publikoak planifikatu eta ebaluatzeke sistema** bat ezarri behar da, eta, beraz, ardatz honen helburua da, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren



Administrazio Instituzionalean zeharkako sistema korporatibo bat ezartzea, betiere lankidetzaz ikuspegitik, gardentasunerako, kontuak emateko eta etengabeko hobekuntzarako tresna gisa, arau eta metodologiako esparru komunaren pean ohiko ebaluazio arautua egiteko prozedurak ezarriz. Modu horretan, Eusko Jaurlaritzaren ekintza premia sozialetara egokituko da, eta politika publikoen eraginkortasuna eta herritarrek horien aurrean daukaten gogobetetasun-maila ezarriko ditu.

Ebaluatzeko benetako estrategia korporatiboa abian jartzeko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, gai honen **eredu instituzionala eta antolakuntzako** lantzea, hau da, prozesuaren lidergoaz arduratuko den antolakuntzako egitura bat. Behin hura ezarri ondoren, beharko diren lan-lerro ugari eta askotarikoei ekin ahalko zaie.

Horretarako, 2017an honako hauek egin dira: "*Eusko Jaurlaritzako plangintza estrategiko adimendunaren antolakuntza-ereduaren proposamena: nor, zer eta nola*"; eta "*EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko politika publikoak planifikatu eta ebaluatzeko unitatearen sorrera justifikatzeko memoria*". Oraintsu, 2019ko ekitaldian, Ogasun eta Ekonomia Sailak proposamen berri bat egin du antolakuntza-eredu horri buruz.

Ardatzak oraindik ez du izan behin betiko bultzada. Izan ere, eredu horren arabera izango da, neurri handi batean, proiektuen eta azpi-proiektuen betearazpena, bai eta emaitzen bideragarritasuna eta iraunkortasuna ere.

### 3. ardatza. Herritarrekiko harremanak

**Zuzenean - herritarren arreta-zerbitzua hobetu eta garatzeko orduan**, azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzako Saitetako Zerbitzu Zuzendaritza guztietan martxan jarri dela **Erregistroak Trukatze Sistemak**. Gainera, *Zuzenean* zerbitzuaren hileroko txostenak eta eguneroko aginte-taula eguneratu dira.

Azkenik, *Zuzenean* zerbitzuan jasotzen diren **kexak, iradokizunak eta esker onak kudeatzeko sistema ere informatizatu da**.

Interneteko presentziak bilakaera positiboa izan du. Euskadi.eus atariaren sarera egindako bisitakopuruak gorantz jarraitzen du etengabe. 2019ko lehen seihilekoko bisitakopurua 30.916.334koa izan da, hau da, 2018ko aldi berean baino % 5,71 altuagoa. Era berean, bisitatutako webguneen kopurua ere igo da aldi berean; zehazki, % 4,96, eta 121.387.412ra iritsi da. 2019ko lehen seihilekoan gehien bisitatu diren hiru web-atariak Lanbide, Euskalmet eta Osakidetza izan dira.

Euskadi.eus-eko web-atariak bisitatzeko erabili diren gailuetan ere ikusi da bilakaerarik; izan ere, 2019ko lehen seihilekoan ordenagailuetatik egindako bisiten kopurua % 49,42koa izan da, hau da, 2018ko aldi berean baino % 4 baxuagoa. Hala ere, gailu mugikorretatik egiten diren bisiten



kopuruak gorantz jarraitzen du, eta % 46,62ra iritsi da 2019ko lehen seihilekoan. Horrenbestez, 2018ko aldi berarekin alderatuz gero, % 5eko igoera egon da. Web-irisgarritasunean egon diren hobekuntzen ondoriozkoa da, neurri handi batean, bilakaera hori. Izan ere, Euskadi.eus-eko atarien sarean hainbat hobekuntza sustatu dira.

Halaber, www.euskadi.eus-eko atarien sare osoa HTTPtik HTTPSra migratu da, eta azpiegituraren web-zerbitzari eta komunikazioen alderdi teknologikoa eguneratu da. Onurak hainbat dira:

1. Herritarren segurtasun handiagoa Eusko Jaurlaritzarekin aritzean.
2. Web-presentzia interneteko berezko estandarretara egokitzea.
3. Euskadi.eus-en sareko webguneen posizioa hobetzea.

Eusko Jaurlaritza bere webgunea irisgarri egiteko lanean ari da, honen arabera: [1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa](#). Gaur egun, Web Irisgarritasuneko Behatokiaren arabera, Euskadi.eus bilakaera positiboa edukitzen ari da, eta partzialki bat dator 1112/2018 Errege Dekretuarekin. Salbuespena dira jarraian azaltzen diren alderdi hauek:

- Lotura batzuetan testuak ez dira aski deskribatzaileak edo esanguratsuak.
- Kasu batzuetan, zerrenden habiaraketa desagokiak antzeman dira.
- Aplikazio zahar batzuk daude, eta, horietan, script bidez programatutako elkarrekintza-elementu ez irisgarriak daude, edo ez dituzte formularioaren kontrolak markatzen kasuan kasuko etiketekin.
- Orri batzuetan, akatsak ageri dira CSS kodean, eta balidazio-akatsen bat agertu da HTMLn.
- Webguneren batean edizio-akats zehatzak egon litezke.

**Zerbitzu elektronikoek eskaintza** dela eta, aipatzekoa da 2018. urtean *Zerbitzuak Digitalizatzeko Plana (ZDP)* egin dela *PEGIP 2020*ren indarraldirako.

DACIMAK 53 prozedura digitalizatu ditu 2017an eta 117 2018an. Eusko Jaurlaritzaren mendeko sailek, organismoek eta erakunde publikoek beren digitalizazio-proiektu propioak sustatzen dituzte.

Hala ere, digitalizazio-mailaren bilakaera (xedeko digitalizazio-maila eskuratu duten zerbitzu eta prozeduren %) errealitatearekin kontraesankor gerta liteke, 2016tik portzentajetan murriztu egin dela ematen baitu:

- 2016-12-31: **% 68,5**
- 2017-12-31: **% 70,5**
- 2018-12-31: **% 59,6**



2018an jaitsi egin zen, Zerbitzuen Katalogoan garbiketa-prozesu bat abiarazi baitzen. Katalogo hori da, hain zuzen ere, adierazle horiek eskuratzeko informazio-iturria, eta bertatik ezabatu dira bikoiztuta zeuden zerbitzuak edo zaharkituta zeudenak.

**Zerbitzu elektronikoaren erabilgarritasuna hobetzeko**, honako lau eremu hauetan egindakoa azpimarratu behar da:

### Hizkera argia eta irakurketa erraza

- 2017-2018: Irakurketa errazeko eta hizkera argiko prestakuntza-ekintzaren ikastaroaren pilotua martxan jarri da (IVAPeko eta Euskadiko Irakurketa Errazeko tutoreak).

### Dokumentuak estandarizatzea eta normalizatzea

- Beka, laguntza eta dirulaguntzen prozedura-familiako agirien txantiloak estandarizatu ditu diziplina arteko lantalde batek, DACIMAREN zuzendaritza eta koordinazioaren pean, ikuspegi desberdinak kontuan hartuta:
  - IVAPeko administrazio-hizkuntzako arloa.
  - Arlo juridikoa: Kontrol Ekonomikoko Bulegoa (KEB) barne.
  - DACIMAKO zerbitzuen digitalizazioaren arduraduna.
  - PLATEA Izapideak ataleko arduradunak (EJIE).
- Dagoeneko badaude txantiloak estandarizatuak honako agiri hauetarako: zuzentzeko errekerimendua, atzera egiteko ebazpena, dirulaguntza emateko ebazpena, laguntza ukatzeko ebazpena eta dokumentazio-errekerimendua.

### Herritarrentzako formularioak. Egindakoa:

- Eskari-formulario elektronikoko testuak, aginduak eta testuinguru-laguntza egokitu dira.
- Jakinarazpen eta komunikazioen sistema hobetu da.
- Formularioen datuak Excel-era esportatu daitezke.
- Zenbait hobekuntza egin dira funtzionamenduaren alderdi teknikoetan, erabilgarritasuna eta funtzionalitatea areagotu dira, eta formularioen segurtasuna hobetu da.

### Egoitza elektronikoaren bilakaera. Egindakoa:

- Nabigaziorako egitura berria intuitiboagoa eta zuzenagoa da.
- Itxura bat dator Euskadi.eus-en diseinuarekin, eta atari berean integratuta dago.
- Edukiak eta testuak hizkera argira egokitu dira.
- Gailu mugikorretara egokitu da.



**Herritarren karpeta** mintzagai, Nire Kudeaketak guztiz birdiseinatu da, eta, orain, **Nire Karpeta** izena dauka. Teknologia eguneratu eta diseinatzeko alderdiez gain, azpimarratzekoa da Nire Karpeta Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroarekin integratu dela, eta Nire Profila sortu dela. Hala, azken horrek erabiltzaileei aukera ematen die administrazioarekin komunikatzeko eta harremanak izateko datuak kontrola ditzaten.

## 4. ardatza. Integritatea edo Zintzotasuna

Eusko Jaurlaritzak X. legegintzaldian onartu zuen [Goi-kargudunen Etikaren eta Jokabidearen Kodea](#). Edukiei dagokienez duen eraketa eta Etika Publikoaren Batzordearen sorrera dela-eta, lehen urratsa da erakundeen integritate-sistema "integral" bat eraikitzeko. Hasiera batean goi-administrazioaren mailari erreparatu zion.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoak, beraz, irmotasunez egiten du integritatearen ardatza ikuspuntu integral batetik garatzearen alde, euskal erakunde publikoen sinesgarritasuna, Euskadi marka, konfiantza publikoa eta euskal erakundeen irudiaren fidagarritasuna indartu nahi dituen politika baten euskarri gisa.

Eusko Jaurlaritzaren ereduak prebentzioan inbertitu nahi du, kalte instituzionala jada saihestezina baita administrazioko zehapenak edo kondenak jartzen direnerako.

Erakundeen integritate-politikan sakontzeko lan-ildoak gobernantza publikoa indartzen du, bai eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren seriotasunaren irudia ere.

Horren harira, *PEGIP 2020*ren testuinguruan, etikaren eta jokabidearen kodera atxikitako pertsoneri zuzendutako zenbait jardunaldi-ziklo garatu dira, honako gai hauei buruz: "Etika publikoa Gobernu Irekiaren erronken aurrean", "Integritate Instituzionala: kargudun publikoak, zuzendaritzako langileak eta funtzionarioak", edo "Integritate-arriskuen ebaluazioa erakunde publikoetan".

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen 2017ko Memoria argitaratzean, Batzordeak garatutako jardueren berri da, publikoki.

Horren harira, Eusko Legebiltzarrari txosten bat bidali zaio, honako azterketa hau bertan bilduta: kargu publikodunek noraino bete dituzten ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (Kargu Publikodunen Jokabide-kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituenak) ezarritako betebeharrak (2019-01-25).

Era berean, erabaki bat onartu da, zeinaren bidez aintzat hartzen baitira Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak egindako gomendioak eta haiek martxan jartzeko neurriak jartzen (2019-02-26).





Bestalde, antolakuntza- eta araudi-mailan hainbat neurri garatu dira, 1/2014 Legearen betebeharrak kontrolatzeko:

- Langileen Erregistro Zerbitzua sortu da (2016).
- Martxan jarri da “goi-mailako zuzendaritza exekutiboa”, kolektiboarekin harreman digitalak edukitzeko “langileen atariaren” barruan.
- Agindua, 2018ko abuztuaren 2koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideei buruzko dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari alde aurreko onarpena ematen diona.
- Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen lanpostuen katalogo eguneratua, Jaurlaritzaren konpromiso hau betetze aldera: gardentasun gorenari, publizitate aktiboari eta herritarrek erantzukizun publikoa duten lanpostuei buruzko informazioa jasotzeko duten eskubideari lotua. (2019-03-26)

## 5. ardatza. Berrikuntza

Ardatz honen helburua da **herritarrek eta profesional publikoek** politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan **parte har** dezaten lortzea, abiapuntutzat hartuta sektore publikoak modu eraginkorrean izan behar duela berritzeko gaitasuna. Hain zuzen, sektore publikoak egungo gizarteari balioa eta zerbitzua emateko konpromisoa du, eta gizarte konplexu eta aldakor horren erronkei erantzun nahi badie, berritzeko gaitasun horrek ahalik eta oinarri handiena eduki behar du. Berrikuntza irekia **sustatu** nahi da, pertsonekin eta pertsonentzako sortuz.

Ardatz honek hiru lan-lerro edo proiektu jorratzen ditu:

### 5.1. Berrikuntzarako tresnak, herritarrekin eta profesionalekin erabiltzekoak

Proiektu honetan, zeharka egin da lan, beste proiektu batzuetan aprobetxatuz honako hauetarako aukera:

1. Alde batetik, lankidetzak-espazio profesionalak finkatu eta handitzeko aukera, ikaskuntza partekaturako, lankidetzak-lanerako eta sareko antolakuntza eta berrikuntzarako, profesional publikoen arteko komunikazioak erraztu eta efizienteago egingo dituzten antolaketa-espazio fisikoak eta birtualak sortuz, hobekuntza etengabea eta berrikuntza bultzatzeko funtsezko elementu gisa. Zeharkako lankidetzarako 5 espazio berri sortu dira:



2. Herritarren ikuspegia zerbitzu publikoetan sartzeko aukera, nolabait zerbitzu publikoak, orokorrean, eta bereziki *PEGIP 2020* honen berrikuntza-proiektuak diseinatzen, betearazten eta ebaluatzen parte harraraziz. Eremu honetan, herritarrek parte hartzeko bi saio egin dira Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeei laguntzeko programan, hizkera argi eta irakurketa errazeko irizpideak aplikatzeko testuinguruan (ikus 3.4. proiektua). Era berean, herritarrek parte hartzeko saioak egin dira Euskadik OGPn duen partaidetzaren testuinguruan (Open Government Partnership; ikus 5.2. proiektua).

## 5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin

- OGP (Open Government Partnership) Euskadi 2018-2020 Plana, herritarrekin batera sortua <http://www.ogp.euskadi.eus/ekintza-plana/-/ogp-ekintza-plana/>
- Proiektu hau gauzatzeko, erakundearteko hautagaitza bat prestatu da, Euskadi kide gisa sartzeko Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzan. Onartu ondoren, herritarrekin batera prestatu zen Euskadiko gobernu irekiaren 2018-2020 Plana. <http://www.ogp.euskadi.eus/ekintza-plana/-/ogp-ekintza-plana/>
- Planak 5 konpromiso ditu:
  - 1. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez
  - 2. Open data Euskadi eta Linked Open data
  - 3. Partaidetzarako Ilab Euskadin
  - 4. Open Eskola, herritarrentzata irekitako eskola
  - 5. Integritatearen euskal sistema; hori betearazteaz arduratzen dira Eusko Jaurlaritza, 3 foru-aldundiak, hiru hiriburuetako udalak, eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia.

## 5.3. EAEko administrazioaren analisi prospektiboa.

“Herritarren eskariaren analisia eta administrazio-ereduaren gaineko proiektzioa (administrazio-ereduari buruzko analisi prospektiboa)” izeneko proiektua jarri da abian. Zehatzago, eta aurreikusita dauden esku-hartze eta jarduketan esparruan, lehenengo hasierako ekite kualitatibo bat garatu da (etorkizuneko joeren analisia).



## 6. ardatza. Kudeaketa aurreratua

Seigarren ardatzari makro-ardatza dei dakiok. Izan ere, 5 azpi-ardatz ditu bere baitan, administrazio efizientea lortzeko helburu estrategikoan laguntze aldera. Hauek dira bost azpi-ardatzak:

- Antolaketaren egokitzapena
- Eraldaketa digitala
- Aurrerabide
- Administrazioarteko lankidetzak
- Pertsonak

### Antolaketaren egokitzapena

Azpi-ardatz honek *PEGIP 2020ren* "Administrazio efizientea" helburua bete nahi du: *"Administrazioaren eta bere sektore publikoaren antolaketa-egitura egokitzea herritarren egungo beharretara eta eraldaketa digitalaren, elkarlanaren eta berrikuntzaren edo gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara, eta Administrazio publikoan gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana sustatzea"*.

Inplikaturako proiektuek Administrazioaren egituraren eta antolaketaren gaineko kontzepzio berria jorratzen dute, eta herritarrentzat emaitzak lortzeko kudeaketa-sistema eta eredu berriak ezartzen dituzte.

la hogeita hamar urte igaro dira EAEko administrazio publikoaren hasierako oinarriak finkatu zirenetik, Jaurlaritzaren Legearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen lehen Legean euskal sektore publikoaren gainean egiten den definizioarekin: gizarte, lege, antolakuntza eta teknologian egondako aldaketen ondorioz ezinbestekoa da **erakundea eguneratzea, eta gure administrazioaren funtzionamendua eguneratuko duen araudia** ezartzea. Horrenbestez, era egokian ekin zaie hauei:

- a) Gobernu Kontseiluak 2019ko urtarrilaren 22an onartu zuen xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko lege-proiektua; testu horrek Eusko Jaurlaritzak bere legeak eta dekretuak egiteko bete behar dituen faseak eta baldintzak zehaztu, mugatu eta arautzen ditu, honako helburu hauek lortzeko:
  - Desburokratizazioa; arauak egiteko izapideak eta prozedurak sinpletu eta errazten dira, lege eta dekretuen berme juridiko osoak eta kalitatea bermatuta.
  - Berdintasuna: arauak egiteko prozesuan, genero-ikuspegia aztertzen duten txosten guztiak aurreratu eta lehenesten ditu, eta zuzenketa-neurriak aplikatzen ditu berdintasuna bermatzeko, baita Eusko Jaurlaritzak egiten dituen arau-testuetan ere.



- Modernizazioa: arauak egiteko prozeduran sartzen ditu "Gobernantza oneko" baldintza berri eta zorrotzak, hala nola nahitaezko gisa ezartzea herritarren partaidetza, gardentasuna, planifikazioa eta ebaluzioa legeak eta dekretuak egiteko prozedura osoan zehar.

b) Eusko Legebiltzarrekin lankidetzan ari da, Euskal sektore publikoari buruzko lege-proposamena ondo bideratu dadin (Gobernua osatzen duten talde politikoek 2017ko uztailaren 26an aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean lege-proposamena).

Sektore publikoaren antolaketa eta funtzionamendua zuzentzen dituzten arauak ere egokitu behar dira, gobernantza publikoaren erronkei bermeekin aurre egin nahi badiegu. Lege-proposamenak oinarri berriak marrazten ditu euskal sektore publikoa finkatzeko eta egun Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen hutsunea beteko duen arau bat bultzatzeko.

Lege-proposamen honek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamenduz bildu dituen alderdi nagusiek berrikuntzak dakartzate administrazio-izapideak egiteko moduan, eta gure gobernantza-eredua sendotzen dute, gizartearen, ekonomiaren eta erakundeen garapen iraunkorra lortzeko helburuarekin, gobernuaren, gizarte zibilaren eta jarduera sozial eta ekonomikoaren arteko orekan oinarrituta. Arau horrek gobernantza onaren ikuspegiaren eta helburu argien arabera jardun behar du:

- Indarreko legedi sakabanatu eta zatituak sortzen dituen disfuntzioak kendu.
- Euskal sektore publiko osoan printzipio orokor komunak aplikatzen direla bermatu.
- Langileen, aurrekontuen eta enpresa eta fundazio publikoen aurrekontuen eta finantzaketaren arloan kontrolerako formulak sartu.
- Sektore publikoan errepikapenak saihestu, enpresa eta sozietate publikoen bilbea arrazionalizatuz eta erraztuz.

PEGIP 2020ren helburuetako bat da **EAEko enpresa-sektore publikoaren egitura berrantolatu eta sinplifikatzea**, 2013ko ekitaldiko aurreko Berrikuntza Publikoko Planean onartutako dimentsio berrirako planari berriz helduz. Bada, horrekin lotuta, dagokion proiektua garatzeko, lehenik eta behin euskal sektore publikoari buruzko lege-proposamena onartu behar da. Izan ere, lege-proposamen horrek ezartzen ditu garatu beharreko berrantolamendurako oinarriak.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 14ko Legearen 83. artikulua sortu duen Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua aukera bat da egun arte dauden antzeko eraketako sektoreko organo-sorta berrikusteko, maila anitzeko gobernantza arrazionalizatu, sinplifikatu eta hari gardentasun-maila handiagoa emateko xedez, alferreko errepikapenak saihestuz.



**Kide anitzeko organoak ebaluatzea eta hobetzea, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan integratzeko** proiektuaren garapenak balorazio oso positiboa izan du. Misiotzat du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren Administrazio Instituzionalaren mendeko kide anitzeko organoak arrazionalizatzea eta hobetzea eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak gauzatzea, tresna erabilgarri, eraginkor eta efizienteak izan daitezen politika publikoak zehazteko, betearazteko eta ebaluatzeko orduan, modu partaide eta gardenean.

Aipatutako proiektuaren helburu eta asmo orokorra da kide anitzeko organoetarako jarduera-plan bat betearaztea, zeharkako eta berariazko neurrien bitartez, bereziki maila ezberdinetako euskal administrazio publikoak inplikatzeko dituzten politika publikoetan hobetu ahal izateko partaidetza-funtzioak, aholkularitzakoak eta koordinaziokoak, abiapuntutzat hartuta zerikusia duten pertsona eta erakunde guztien arteko gogoeta bateratua eta partaidetzazkoa eta gaur egungo egoeraren indarguneen eta ahulezien gaineko ebaluazioa eta diagnostikoa.

Jarduera-planak Gobernuaren konpromiso hauei erantzuten die:

- **Gobernu Programa: 60. konpromisoa:** *"Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu"*, eta **8. ekimena:** *"EAEko Administrazio Orokorreko maila anitzeko erakundeez osatuta dauden kontseiluak eta batzordeak aztertu, eta identifikatu horietatik zeinen zereginak bete ditzakeen Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak"*.
- **[Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria](#):** honako hau egiteko konpromisoa: *"Euskadin dauden prozesu parte-hartzaileen parte eta kanal formalen inguruan azterketa kritikoa. Nabarmenezkoa da zer nolako garrantzia duen administrazio-egituretan integratuta dauden kontseilu eta organo parte-hartzaileak / aholku-emaileak berrikustea, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txerta dadin: zer balio ekar dezaketen horretan edota, are, parte hartzea eragotz dezaketen trabak izan daitezkeen ala ez"*.
- **Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren 2017ko urriaren 31ko Erabakia:** *"azterlan bat egitea, EAEko hiru maila instituzionalek edo erkidego-mailak eta udal-mailak parte hartzen duten kide anitzeko organoak arrazionalizatzeko modua aztertzeke, eta Tokiko Politika Publikoen Kontseiluari helaraztea, kontuan har dezan"*.
- **Lege Proposamena, Euskal Sektore Publikoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa,** zeina Eusko Legebiltzarrean ari baitira izapidetzen: **3. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera,** urtebeteko epean txosten bat egingo da, gutxienez, honako hauek bilduko dituen:
  - a) Dauden kide anitzeko organo guztien zerrenda, nola integratzen diren administrazioan edo zer mendekotasun hierarkiko duten, nola katalogatuta dauden esleituta duten funtzio-motaren arabera, eta funtzioen deskribapena.



- b) Erakundearen koherentzia eta arrazionaltasunaren ebaluazioa, eta, hala badagokio, kide anitzeko organoen egitura soiltzeko proposamena; kasu horretan, beharrezkoak diren erregelamenduak emango dira organoak batzeko edo desegiteko.

## Eraldaketa digitala

Azpi-ardatz estrategiko honen helburua da jauzi kualitatiboa ematea **administrazio elektronikoa ezarri eta hedatzeko** prozesuan. Prozesu hori intentsitate oso handiz garatu da azken legegintzaldietan.

Aipatu **39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa**, promulgatzeak behin betiko babesa eman dio eraldaketa digitalaren prozesu horri. Izan ere, orokorrean ezarri ditu administrazio-prozedura elektronikoa eta harreman elektronikoa administrazio publikoen artean nahiz haien eta pertsona juridikoen eta kanal elektronikoa nahitaez erabili behar duten hirugarrenen artean.

Hala, ardatz estrategiko honek EAEko administrazio publikoaren **eraldaketa digitala** bilatzen duten zenbait proiektu biltzen ditu. Hona horien azalpena eta aurrerapenak:

- **Administrazio elektronikoaren antolaketa- eta funtzionamendu-eredua** finkatzea, bereziki azpimarratuz zerbitzu elektronikoaren antolaketa-euskarria sortzea, bai Eusko Jaurlaritzan transbertsalki, bai sail eta sektore mailan, baita lanpostuen profilen eta pertsonen prestakuntza egokitzea ere, zerbitzu elektronikoek zuzen funtzionatzeko.

Administrazio elektronikoaren antolaketa- eta funtzio-eredua aztertu ondoren, funtzioak berrantolatzeke proposamen operatibo bat egin da, lankidetzeta-espazio baten inguruan: **Zerbitzu Elektronikoaren Sarea, 2019ko ekainean aurkeztu zenetik martxan dena**. Hona hemen sare horren helburuak:

- **Administrazio Elektronikoaren hedapenean parte hartu behar duten agente guztiak identifikatu, "aktibatu" eta konektatzea**, bai zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzen parte hartu behar dutenak, bai zerbitzu elektronikoak kudeatzen parte hartuko dutenak.
- **Koordinazioa eta lankidetzeta sustatzea** zerikusia duten organo zeharkako edo horizontalen eta eremu horretan bete beharreko zeregin bat duten sailetako agenteen artean.
- **Babesa eta laguntza ematea** administrazio elektronikoa hedatu eta kudeatzen inplikaturako agente guztiei, eta, horretarako, zerbitzu-sare bat eratzea eta berritu eta hobetzeko gunea bihurtzea.
- **Zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzeko prozesuak erraztea**, protokolo egituratu baten bidez eta protokolo hori lankidetzarako espazio zehatzetan kudeatuz.



## Herritarrek zerbitzu elektronikoen duten gogobetetasunari buruzko inkesta

Herritarrek zerbitzu elektronikoen duten esperientzia hobetze aldera, inkesta bat diseinatu eta planifikatu da, herritarren gogobetetasuna neurtzeko eta hobetzeko arloak identifikatzeko. Inkesta hasiera batean 2018rako aurreikusi zen arren, 2019ko ekainetik aurrera egin da, eman zaizkion irismena eta zorrotasun estatistikoa handiagoak izan baitira, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren estatistika-organoak parte hartu duelako hura diseinatu eta betearazteko orduan (ikus 7.1. proiektua).

- **Zerbitzu Elektronikoen Plataforma Komunaren** bilakaera, administrazio-prozedura elektronikoen kudeaketari euskarri ematen dion teknologia-azpiegitura korporatiboaren erabilgarritasuna, egonkortasuna, eskalagarritasuna eta errendimendua bermatzeko asmoz.

2017. eta 2018. urteetan, Tramitagune-PLATEA plataformaren 8 bertsio berri ezarri dira. Hala, hainbat hobekuntza teknologiko eta funtzional sartu ahal izan dira, tartean nabarmentzekoak: ontzi-jokoen bidezko sarbidea; hobekuntza nabarmenak ordezkarien erregistroan; PLATEA plataforma Euskalsarea.eus-era migratzea; laguntzak eta dirulaguntzak izapidetzeko oinarriko zeharkako eredu ezartzea; pseudonimo-ziurtagiriak onartu eta; Giltza identifikazio eta sinadura elektronikoko tresna gisa sartzea; posta-aplikazioarekiko integrazioa, paperezko jasotze-agiriak ezabatzeko; PADES sinadura-formatua aktibatzea espedienteen kudeatzaileko sinaduren atalean, RdR-ren diseinu berria EJIEn Aplikazioak Garatzeko Erabileren egungo bertsioaren arabera; Tramitagune-PLATEA eta Giltza profesionalaren arteko integrazioa; eta interesdunak eta haien ordezkariak kudeatzeko eredu berria.

Era berean, 2017ko azaroan, Eusko Jaurlaritzako Erregistro Elektronikoa Estatuko gainerako administrazio publikoetako erregistroekin interkonektatu zen, Erregistroak Interkonektatzeko Sistemaren (ETS) bidez.

- **Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan**

2016an, Eusko Jaurlaritzak "Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan" proiektua onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan. Orain, ekintza-planean jasotako neurriak ezartzea da erronka.

Horretarako, lehenago, planean aurredefinitutako helburuak **arau-xedapen** batean jaso behar dira. Gaur arte, hau da arlo horretan indarrean dagoen araua: [35/1997 Dekretua, otsailaren 18koa, informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituena](#) da.



Laster hogeitun urte beteko dira indarrean dagoenetik, eta tarte horretan pilatutako esperientziak agerian utzi du informazioaren eta komunikazioen teknologien kudeaketa-eredua benetan eraldatu beharra, benetako plangintza estrategiko komun eta koordinaturik ez egoteak eragin duen inefizientzia gainditzeko. Izan ere, azpiegitura teknologikoen sarea benetako interdependentsia eta elkarreragingarritasun urria duten banako sistemen eta konpartimentu estankoen pilaketa bihurtu da, askotan euren artean bateraezinak izanik.

Informazioaren eta komunikazioen teknologien **kudeaketa-eredu berria** eratzea lehentasunezko erronka politiko eta juridikoa da baina, aldi berean, aukera bat da koordinazio-mekanismoak egituratu eta arautzeko, egungo ereduaren inefizientzia gainditu ahal izateko, IKTetako gastuaren efizientzia eta arrazionalizazioa irizpide hartuta.

Funtsezko hiru **helburu** ditu planak:

- Aurrezpenak lortzea.
- Behar den eraldaketa zerbitzuak hobeto emateko baliatzea, eta
- Administrazioaren beraren barruan kontrol estrategikoari eustea.

Plan honen garrantzia gorabehera, litekeena da alor horretako ekimen guzti-guztiak bertan sartuta ez egotea; hortaz, beste bitarteko batzuk baliatu beharko lirateke, beste ekimen horiek ere indarrean izan dezaten beren operatibitate teknologikoa 2020 arte.

Helburu horiek lortzeko, honako jarduera hauek garatu dira:

- Erandioko Datuak Prozesatzeko Zentroa (DPZ) prestatu da, DPZen konbergentziarako lehen urrats gisa.
- IaaS-en eta Elkarlanen lehen bertsioak garatu dira.
- Eustaten DPZ EJIEn DPZra mugitu da.
- Dekretu-proiektu bat egiten ari dira, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko ereduari buruz.

Eraldaketa digitalaren ardatzak **zuzeneko lotura dauka Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren beste ardatzetako** proiektu hauekin.

– 3. ardatza: Herritarrekiko harremanak.

- Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoaren eskaintza osatzea.
- Zerbitzu publiko elektronikoaren erabilgarritasuna hobetzea: egoitza elektronikoa, formulario elektronikoak eta espedienteen kontsulta.
- Zerbitzu elektronikoaren erabilera sustatzea.





- 6. ardatza: Kudeaketa aurreratua: Administrazioen arteko elkarlana.
  - Administrazioen arteko elkarlana antolatzeko tresna bat sortzea zerbitzu elektronikoen elkarreragingarritasunerako.
  - Elkarreragingarritasun-nodoa abiaraztea, beste administrazio batzuen datuetarako sarbidea erraztu eta herritarrei datuen ziurtagiriak eskatzea saihesteko.
  - EAeko administrazio publikoen sarrera- eta irteera-erregistroen interkonexioa bultzatzea.
  - EAeren eremuko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sortzea eta erabiltzea sustatzea.

## Aurrerabide

Aurrerabide da Eusko Jaurlaritzak “kudeaketa aurreratua” identifikatzeko daukan marka. Haren xedea administrazioa eraldatzea da, herritarren eskarira eta beharrianetara egokitzeko, **kudeaketa efikaz, efiziente eta ekitatiboagoa** ahalbidetuz.

Eraldaketa hori lortzeko, Aurrerabidek bere **kudeaketa publiko aurreratuaren eredia** sortu du eta, pixkanaka, Eusko Jaurlaritzako antolaketa-unitateetan eta erakunde autonomoetan ezartzen ari da.

*PEGIP 2020ren* iraunaldian eta 6. ardatzaren barruan (Kudeaketa aurreratua), **hiru proiektu** garatuko dira.

Lehenengo proiektuaren barruan, ereduaren oinarritzko zatian, **prestakuntza-ekintza** egingo da halakorik jaso ez duten unitateentzat, eta prestakuntza-ekintza osagarria gainerako unitateentzat.

Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako antolaketa-unitateetarako kudeaketa aurreratuko prestakuntza-ekintza X. legealdian zehar garatu zen, 2014. eta 2017. urteen artean, eta plangintzan sartzen diren antolaketa-unitate ia guztiek parte hartu zuten aipatu prestakuntza-ekintza horretan. Hasierako plangintzatik kanpo geratu ziren hainbat antolaketa-unitate, besteak beste kabineteko zuzendaritzak, ez baitzuten langilerik, eta Lehendakariatzako zuzendari batzuk, beren berezitasunen ondorioz.

2018. urtean zehar, Egiten Ikasi eremuan, 18 antolaketa-unitateetan jardun da. Horietan prestakuntza-ekintza lehendik egin zen arren, legealdi honetan aldaketa bat egon da, bai bitan banatu direlako, bai beren egitura aldatu dutelako. Halaber, Egiñez Gara memoriak eguneratu dira, hau da, aipatu antolaketa-unitateen kudeaketaren gaineko dokumentazioa eta informazioa laburbiltzen duten memoriak, edukiak errealitate berrira egokitu daitezzen.

Bigarren proiektuaren barruan **unitateen kudeaketaren ebaluazioak** egingo dira, epe jakin baterako finkatze- eta hobekuntza-plana egin dezaten, baita haien urteko jarraipena ere. Hala ere, ezin izan dira ebaluazioak egin, esleipendun suertatu behar zuen enpresa ahalordetean egon zen



akats baten ondorioz. Beraz, ezin izan da proiektu honen euskarria eman behar zuen enpresaren esleipena gauzatu.

Hirugarren proiektuaren barruan **kolaboratzaile-sarea** garatuko da. Eusko Jaurlaritzako eta bere organismo autonomoetako pertsonak osatuko dute, eta unitateen ebaluazioak egiten eta kudeaketa aurreratuaren kultura euskal administrazio osora zabaltzen lagunduko du.

## Administrazioarteko lankidetzak

Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren barruan, Administrazio Publikoko Batzorde Sektoriala (APBS) eratu da, EAEko administrazio publikoen eraldaketa digitalarekin lotutako proiektuak koordinatzeko. Administrazio Publikoko Batzorde Sektoriala da administrazio elektronikoaren gaineko administrazioarteko lankidetzak antolatzen duen tresna. Administrazio Publikoko Batzorde Sektorialeko kideak dira Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta EUDEL.

APBS, eremu operatiboan, erakundearteko lau lantalde hauen bidez antolatzen da:

- Nortasun eta sinadura elektronikoaren taldea.
- Herritarren karpeta eta jakinarazpen elektronikoaren taldea.
- Administrazioen arteko elkarreragingarritasun-taldea.
- Tokiko Administrazioen Zerbitzuen Katalogoaren taldea.

APBSn, Estatuko Administrazio Orokorren Administrazio Elektronikoko Sektore Batzordean jorrotutakoa lantzen da, guztien jarduerak koordinatu eta indarreko araudia betetze aldera.

Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundien artean administrazio elektronikoko oinarriko irtenbideak elkarri emateko lankidetzak-hitzarmenaren ereduak egin, onartu eta aldizkarian argitaratu da. Hasiera batean, lau erakundeek sinatu beharreko hitzarmen bakarra aurreikusi zen, baina, ondoren, beharrezkotzat jo da hitzarmen bat sinatzea foru-aldundi bakoitzarekin. 2018an, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiekin hitzarmenak sinatu dira.

### Elkarreragingarritasun-nodoa

NISAE jarri da martxan EAEko administrazio guztietarako, herritarrek administrazio publikoen esku dauden datuak eta agiriak ez aurkezteko duten eskubidea errespetatu dadin.

Transmisioen kopurua urtero bikoizten ari da, ia, eta horrek ondore positiboak dakarkie herritarrei. Hau izan da transmisioen urteko bilakaera:

- 2011: 534.863 transmisio
- 2012: 668.958 transmisio
- 2013: 1.054.014 transmisio
- 2014: 1.206.325 transmisio



- 2015: 2.894.123 transmisio
- 2016: 3.382.627 transmisio
- 2017: 6.689.050 transmisio
- 2018: 10.592.733 transmisio

Goranzko joerak 2019an ere jarraitu du, eta prozesu masiboak egon dira martxan, besteak beste eskola-matrikulaziorako datuen bitartekaritza.

### **Identifikazioa eta sinadura**

2017an abiarazitako hodeiko identifikazio elektronikoko bitarteko berrien proiektuen uberari jarraituz, 2018an langile publikoen profila jarri da martxan hodeian.

Bak eta BakQ soluziobideekin herritarrei identifikatzeko baliabideak eman nahi zaizkie, irisgarritasun-maila handiko gailu guztietan erabilgarritasuna eta harreman telematikoetan behar den segurtasuna uztartzen dituztenak, prozedura eta/edo zerbitzu bakoitzaren eskakizunen arabera; horrez gain, modu estandarrean jarritako sinadurak egoki zaindu eta baliozkotzeko aukera bermatu nahi da.

Bak-BakQ soluziobideetako autentifikazioa izaera desberdinetako faktoreekin osatzeko aukerak (adibidez, faktore biometrikoekin) areagotu egiten du identifikazio-baliabidearen funtzionaltasuna, bateragarri egiten baitu erabilera-egoera desberdinekin, hala nola herritarrei arreta emateko leihatilarekin, gailu mugikor batekin (aurpegiaren errekonozimendua) edo mahai gaineko ordenagailuarekin (koordinatuen jokoak).

2018. urtean gora egin zuten herritarrentzat eta erakundeentzat igorritako identifikazio-bitarteko guztiek, eta, beraz, argi geratu dira horien baliagarritasuna eta erabilgarritasuna, onarpen-maila, ospea, onarpena eta kreditua, halakoak dituztenen aldetik.

Identifikazio-bitarteko nagusien igorpenen bilakaera 2019ko lehen hiruhilekoan goranzkoa izan da, jarraian ikus daitekeen bezala:

- BakQ: 24.331
- Herritarrak: 2.280
- Erakunde-ordezkaria: 4.157
- Erakunde-zigilua: 8
- Profesionalak: 3.373
- Enplegatutako publikoa: 795



## Pertsonak

Ardatz honen asmoa da **pertsonak antolamenduan daukaten eginkizuna birdefinitzea**. Lehenik eta behin, arau-oinarri bat sortu nahi da **enplegu publikoa modernizatzeko**, hura antolatuz, araubide juridikoa definituz eta kudeaketa-tresna aurreratutako garatuz eta ezarriz; enplegu publikoaren xedea herritarrei eta interes orokorrei zerbitzu ematea da, hain zuzen ere. Bestalde, pertsonen ezagutza eta "egiten jakitea" kudeatzeko diseinatutako plangintza-tresnak hedatu behar dira, jakite hori gizartearen premia eta eskarietara egokituz, hornitzeko eta eskuratzeko aldagaiak, antolatzeko aldagaiak nahiz enplegatutako publikoaren prestakuntza eta aintzatespena efikaziaz kudeatuz, estrategia politikoa eta administrazio-jarduera lerrokatzea lortzeko ahaleginean. Azkenik, gure erakundeetako pertsona guztien ahalmena maximizatzea lortzeko lan egin behar da, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna errealitate bihurtuz.

Helburu horiekin zenbait neurri ezarri dira araudi- eta antolaketa-mailan, kasuan kasuko proiektuen arabera bilduta:

### 10.1. Euskal Enplegu Publikoaren Legea

- Agindua, 2017ko maiatzaren 17koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskadiko Enplegu Publikoaren Lege-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
- Agindua, 2017ko urriaren 16koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskadiko Enplegu Publikoari buruzko Lege-proiektua alde aurretik onartzen duena.
- Lehen aldiz parekatu da, Euskadiko Enplegu Publikoari buruzko Lege-proiektuaren bidez, bikotea osatzen duten bi pertsonentzako gurasotasun-baimenen iraupena (2018-02-16).
- Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek onartu egiten dute Euskadiko Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektua Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan (2018-09-25).
- Gobernu Kontseiluak Euskadiko Enplegu Publikoaren Legearen proiektua onetsi zuen, eta Legebiltzarrera igorri zuen, izapidetzeko (2019-01-29).

### 10.2. EAEko Administrazio Orokorreko enplegu-plana

- Agindua, 2017ko maiatzaren 22koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat erreserbatzen diren III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C berariazko osagarridun lanpostuak hornitzeko lehiaketa orokorraren deialdia eta oinarriak onartzen dituena.
- Ebazpena, 2017ko urriaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, honako erakundeetako langileen eta irakasleen prestakuntzarako laguntzak esleitzen dituena: Eusko Jaurlaritzako sailak, Erakunde Autonomoak, Polizia eta larrialdietako Euskal Akademia, Osakidetza, eta irakasleak. (1.488.097.- €).



- Erabakia, Gobernu Kontseiluarena; horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2017ko enplegu publikoaren eskaintza onartu da, eta 2017-2020 EAeko Enplegu Plan Estrategikoan jaso da zenbat plaza eskaintzen diren Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko. 2017an eskainitako lanpostuak 4.580 dira, guztira (2017-12-05).
- Agindua, 2018ko apirilaren 23koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira C1 eta C2 azpitaldeetako eta E taldeko lanpostuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeak, betetzeko lehiaketa orokorraren deialdia eta oinarriak.
- Harrerako (harrera-plana) eta agurtzeko (mentoring-plana) prozedurak diseinatu eta martxan jarri dira langileentzat, "langileen aitorpenerako" jarduera-esparruan; (2018ko ekaina).
- Honako hau sinatu da: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren negoziazio-mahai orokorraren akordioa, zeinaren bidez onartzen baita EAeko langile lan-kontratudun finkoentzako 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arteko erretiro partzialaren plana (2018-11-08).
- "Herritarren eskariaren analisia eta administrazio-ereduaren gaineko proiektzioa (administrazio-ereduari buruzko analisi prospektiboa)" izeneko proiektua jarri da abian. Zehatzago, eta aurreikusita dauden esku-hartze eta jarduketan esparruan, lehenengo hasierako ekite kualitatibo bat garatu da (etorkizuneko joeren analisia).
- Erabakia, Gobernu Kontseiluarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2018rako enplegu publikoaren eskaintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikoaren bigarren eskaintza onartzen dituena, eta 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan sartzen dituen Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostu-kopurua eta Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoen deialdi publikoan jasoko den lanpostu-kopurua. 2018an eskainitako lanpostuak 4.402 dira, guztira (2018-12-18).
- Gobernu Kontseiluan onartutako enplegu publikoari buruzko lege-proiektuaren testuan xedapen zehatzak daude, enplegua finkatzeko lan-eskaintza publikoak egin daitezela (2019-01-29).
- Gobernu Kontseiluan onartutako enplegu publikoari buruzko lege-proiektuaren testuan xedapen zehatzak daude, langile publikoen "karrera horizontala" izeneko ahalbidetzeko (2019-01-29).
- Gobernu Kontseiluan onartutako enplegu publikoari buruzko lege-proiektuaren testuan xedapen zehatzak daude, langile publikoen jarduera profesionala ebaluatu ahal izateko (2019-01-29).
- Eusko Jaurlaritzak iragarri duenez, martxan jarriko da programa operatibo bat, dibertsitate funtzional intelektuala duten pertsonentzat enplegu publikoa sortzeko (2019-02-22).



### 10.3. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana

- *Administrazio Orokorreko emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehen planaren* esparruan, eta, zehatzago, diseinatutako kudeaketa-ereduaren ezarpenari dagokionean, berdintasun-batzorde iraunkorra eratu da. Era berean, bere funtzionamendu-araubidea edo barne-funtzionamenduko araubidea egin da (2017ko martxoa).
- Berdintasun-teknikariaren lanpostu berria sortu eta hornitu da, proiektu honetarako: "*Administrazio orokorreko berdintasunerako I. Plana*" (2018ko apirila).
- Berdintasun Batzorde Iraunkorra osatzen duten pertsonentzako prestakuntza-plana (2018-2019) ezarri da.
- Hiru lurraldeetan kultura parekidearen ikastaroa eman da, administrazio orokorreko langile guztiei zuzenduta (2018).
- Komunikazio eta zabalkunderako ekintza zehatzak ezarri dira: *Jakinaren* ikusgarritasuna, planaren argitalpena liburu formatuan, eta laburpen exekutiboa (2018-2019).
- *Berdintasuna* postontzia sortu da Administrazioko langileentzat (2018).
- EAEko Administrazio Orokorreko langileei sexu-jazarpenaz eta sexuaren ziozko jazarpenaz sakonago ohartzen laguntzeko jardunaldia garatu da (2018ko abendua).
- Batzorde Iraunkorreetan aurkeztu da "*Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Planaren jarraipen- eta ebaluazio-txostena*" (2019ko otsaila).
- Sexu-jazarpenen eta sexuren ziozko jazarpenaren kasuetarako prebentzio- eta jarduera-protokoloa egiteko lantaldea eratu da (2019ko martxoa).

### 10.4. LPZren balorazioa

- Agindua, 2017ko uztailaren 10ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena; horren bidez hasiera ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeke legea aldatzeko legearen proiektua egiteko prozedurari.
- Dekretu-proiektuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailletako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretua aldatzen dutenak: 2018an, guztira lanpostuen zerrendako 588 lanpostu aldatuta, 21 gobernu-dekreturen bidez.
- Lanpostu berrien sorrera: guztira 11 lanpostu berri sortu dira.
- Administrazio Orokorreko mahai sektorialaren akordioa, gaia: langileen eta funtzionarioen lanpostuen zerrendaren aldaketaren ondorio ekonomikoen ordainketa, EAEn zerbitzuko langileen kolektiboko azterketa funtzionalen ziozko antolaketa-prozesua amaitu ondoren: 436 horniduraren aldaketa, horietatik 368 EAEko Administrazio Orokorreko zerbitzura dauden lan-kontratudunen LPZri dagozkio, 22 funtzionarioen LPZri, 46 Itsasmendikoi-koak dira, eta garbitzailearen hornidura bat sortu da (2019-04-02).
- "Herritarren eskariaren analisisa eta administrazio-ereduaren gaineko proiektzioa (administrazio-ereduari buruzko analisi prospektiboa)" izeneko proiektua jarri da abian.



Zehatzago, eta aurreikusita dauden esku-hartze eta jarduketan esparruan, lehenengo hasierako ekite kualitatibo bat garatu da (etorkizuneko joeren analisia).



## Helburu estrategikoen eta ardatzen araberako jarraipena

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan egindako aurrerapenak jaso aurretik, hona hemen **ardatz bakoitzak PEGIP 2020ko helburu estrategikoekin duen harremana:**



PEGIP 2020ko ardatza	PEGIP 2020ren helburu estrategikoa	
Integritatea edo Zintzotasuna	<b>Integritate-politikan</b> sakontzea ikuspegi integraletik.	<b>Administrazio irekia</b>
Gardentasuna eta parte-hartzea	<b>Gardentasuna, parte-hartzea</b> eta <b>elkarlana</b> sustatzea administrazio publikoan.	
Plangintza estrategiko adimenduna	<b>Plangintza estrategikoa</b> eta <b>esku-hartze publikoen ebaluazioa</b> bultzatzea EAEko Administrazio Orokorrean eta haren administrazio instituzionalean.	
Herritarrekiko harremanak	<b>Kalitatezko zerbitzu-eskaintza</b> garatzea eta hainbat kanaletatik eskuragarri jartzea (aurrez aurre, telefonoz, Internetez).	<b>Administrazio efikaza</b>
Kudeaketa aurreratua	Eusko Jaurlaritzak ematen dituen <b>zerbitzu elektroniko</b> en eskaintza osatzea eta erabilgarritasuna eta irisgarritasuna hobetzea. <b>Zerbitzu elektroniko</b> en erabilera eta, administrazio elektronikoaren arloan, <b>administrazioen arteko elkarlana</b> sustatzea.	
	Enplegu publikoaren antolaketan eta modernizazioan <b>pertsonek jokatzen duten papera birdefinitzen</b> aurreratzea, xedea herritarrei eta interes orokorrei zerbitzatzea dela kontuan izanda.	<b>Administrazio efizientea</b>





Kudeaketa aurreratua	Administrazioaren eta haren sektore publikoaren <b>antolaketa-egitura</b> herritarren egungo beharretara egokitzea, eta eraldaketa digitalak, elkarlanak eta berrikuntzak zein gobernu onak ekarritako lan egiteko modu berrietara moldatzea.	
	<b>Administrazio elektronikoa</b> ezartzea eta hedatzea, baita bere antolamendu- eta funtzionamendu-eredua eta IKTak kudeatzeko eredu berria ere.	
	<b>Kudeaketa publiko aurreratuko eredu</b> bat ezartzea.	
Berrikuntza	Administrazioan <b>berrikuntza</b> sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.	<b>Administrazio berritzailea</b>

Planeko ardatzen eta helburu estrategikoen arteko harremana ulertuta, planaren jarraipenari buruzko informazioa *PEGIP 2020*ren ardatzen arabera egituratuko da.

*PEGIP 2020*ren **ardatz bakoitzerako**, honako informazio hau azalduko dugu:

**1. ARDATZEKO PROIEKTUEN EGUNGO EGOERA ETA BALORAZIO OROKORRA (BEHIN-BEHINEKOA):**

Dagokion ardatzeko proiektu bakoitzerako, honako informazio hau jasotzen da:

- a. Organo arduraduna
- b. Amaitzea aurreikusten den data
- c. Betearazpenaren egoera
- d. Programaren balorazio orokorra

**2. ARDATZAREN HELBURUAK, *PEGIP 2020*an formulatuak**

**3. GERTAERA, PRODUKTU ETA LORPEN ESANGURATSUENAK ARDATZEKO PROIEKTUEN TESTUINGURUAN**

**4. ARDATZEKO PROIEKTUEN ADIERAZLEAK**



## 1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea



## 1. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Gardentasuna eta parte-hartzea

Proiektuaren izena <sup>1</sup>	Organo arduraduna	Aurreikusitako amaiera-data	Egoera	Balorazioa <sup>2</sup>	KPI
1.1. Gardentasunari buruzko Legea	DACIMA	2017-07-31	Amaituta	Positiboa	
1.2. Publizitate aktiboa eta sarbiderako eskubidea	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	
1.3. Gardentasunerako Sailarteko Batzordea	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	
1.4. Gardentasunari buruzko jardunbide egokiak	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	
1.5. Liburu Zuriko konpromisoak	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	
1.6. Open Data	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	

(1) Izen laburra. Ikus proiektu bakoitzaren fitxa osoa, txostenaren amaieran.

(2) Balorazio orokorra proiektuaren betearazpenari buruzko balorazioa da. Semaforoan kolore berdea, laranja edo gorria jarrita islatuko da. Bitarteko txostenean behin-behineko balorazioa soilik egin daiteke, noski, betiere proiektua amaituta ez baldin badago.



## 1. ardatzaren helburuak. Gardentasuna eta parte-hartzea

- Legebiltzarrekin elkarlanean aritzea EAEko Gardentasunaren eta Herritarren Parte-hartzearen Lege-Proposamena burutzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren lidergoari eustea nazioarteko gardentasun-estandarretan.
- Gobernantza, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko politikak bultzatzeko erabakimena duen antolaketa-egitura jartzea.
- Arian-arian liburu zuriko konpromisoak garatzea, kontuan hartuta "zehaztetik hasteko" eginbidea eta hedapenerako konpromisoak.

## Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak 1. ardatzeko proiektuetan Gardentasuna eta parte-hartzea

### 1.1. Gardentasunari buruzko Legea

- Lege-proposamena Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuten EAJk eta PSOEk 2017ko uztailaren 26an. Zuzenketak egiteko epea itxi da, ponentziak zenbait bilera egin ditu, eta ekimena martxan dago oraindik.
- 2017ko irailaren 19an, lege-proposamena kontuan hartzearen alde agertu zen Jaurlaritza; izan ere, lege-proposamenak bat egiten du gizarte-beharrizan batekin: arau moderno eta eguneratua izatea politika publikoen ebaluazioaren, gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren alorrean.

### 1.2. Publizitate aktiboa eta sarbiderako eskubidea

- GARDENA gardentasun-atariaren diseinu berriaren prototipoa: irudi berria, kontakizunak, grafikoak eta bisualizazioak.
- Ez denez kanpoko ebaluaziorik egin, nazioarteko gardentasun-eskalan 2016an lortu zen lidergoari eutsi zaio.

### 1.3. Gardentasunerako Sailarteko Batzordea

- Etengabeko koordinazio-bilerak eta harremana, gardentasun-neurriak eta herritarren partaidetza jorratzeko modua homogeneizatzeko.

### 1.4. Gardentasunari buruzko jardunbide egokiak

- Erkidego-mailako eta estatuko gardentasun-kontseiluen bi bileratara joatea.



- Euskadiren hautagaitza Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzako kide izateko, eta garaile atera da deialdi horretan, sarearen munduko 15 eskualdeetako bat denez gero.  
<http://www.ogp.euskadi.eus/ogp-euskadin/-/euskadiko-ogpren-hautagaitza/>

### 1.5. Liburu Zuriko konpromisoak

- Elkarlan sariak esleitu dira 2017an eta 2018an.
- Lankidetzazko negoziazioaren gaineko prestakuntza eman zaie Eusko Jaurlaritzako langileei, taldeetan eta lankidetzazko beharrianetan eraginik.
- Parte-hartzeko prozesuak sustatu dira Eusko Jaurlaritzan: 4/2005 berdintasun-legearen partaidetzazko ebaluazioa; zientzia herritarra-Bid Rex Interreg Europe; Plataforma parte-hartzailea etxebizitzaren euskal behatokian; lurraldea antolatzeko zuzentarauen berrikuspena; Bherria. <http://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna-orokorra/-/gardentasun-herritarren-partehartze-eta-gobernu-onerako-tresnak/>

### 1.6. Open Data

- Vitoria-Gasteizko Udaleko datuen federazioa
- Open Linked Data proiektuaren garapena
- Elkarlan Sariak: Open Data kulturaren sustapena
- Open App-en sustapena: aplikazio irekiak katalogoan
- Open Linked Data azpiegituraren ezarpena (SPARQL, etab.)
- ELI proiektuaren ezarpena
- Bizkaiko Foru Aldundiko Federazioa
- "Euskalmet: Datuak ireki eta webgunea birdiseinatzea" izeneko proiektuaren hasiera
- "Pertsona, erakunde eta ekipamenduen direktorioa" izeneko proiektuaren hasiera
- "Datuak ikusarazteko atari berria" izeneko proiektuaren hasiera
- Datu irekien lehiaketak (7 euskal administrazioen artean)
- OGP proiektuaren hasiera



## 1. ardatzeko adierazleak: Gardentasuna eta parte-hartzea

	2017		2018		2019		2020	
	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua
<b>1.1. Gardentasunari buruzko Legea</b>								
Gardentasunari buruzko lege-proiektuaren zirriborroa Gobernu Kontseiluan adostu eta onartu da	Bai	Bai	-		-		-	
Egindako proposamenaren arabera onartutako legeak jasotako elementu arautzaileak	-		-		-		Bai	
<b>1.2. Publizitate aktiboa eta sarbiderako eskubidea</b>								
Urteko balantzea positiboa argitaratutako adierazleen eboluzioan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai		Bai	
Ura kudeatzen duten organoen gardentasuna ebaluatzeko Nazioarteko Gardentasuna erakundearen rankingeko postua	=1	=1	=1	=1	=1	-	=1	
Dyntra (gardentasun dinamikoaren indizea) gardentasun-ebaluazioaren rankingeko postua	<=3	3	<=3	=7	<=3	-	<=3	
Autonomia-erkidegoen gardentasuna ebaluatzeko INCAU rankingeko postua (Nazioarteko Gardentasuna erakundea)	=1	=1	=1	=1	=1	-	=1	
<b>1.3. Gardentasunerako Sailarteko Batzordea</b>								
Urtean egindako bileren kopurua	2	1	2	2	2		2	
Gardentasunerako Sailarteko Batzordea izeneko organoa eratu da	Bai	Bai	-		-		-	
<b>1.4. Gardentasunari buruzko jardunbide egokiak</b>								
Autonomia-erkidegoen arteko edo nazioarteko foroetara joatea, jardunbide onak trukatzeko	3	1	3	4	3		3	
<b>1.5. Liburu Zuriko konpromisoak</b>								
Elkarlan sarietan egindako urteko deialdiak	1	1	1	1	1		1	
Herritarren parte-hartzerako egindako tresna sektoriala	1	0	-	0	-		-	
Liburu Zuriaren eduki berrien kopurua	1	0	-	0	1		-	
Ebaluatutako partaidetza-prozesuen kopurua	-	0	-	0	2		-	
Egindako proiektu pilotuen kopurua	1	1	3	5	4		5	
Innobasque-kin lankidetzeta-hitzarmena sinatu da	Sinatuta							



	2017		2018		2019		2020	
	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua
<b>1.6. Open Data</b>								
Datu irekiei buruz egindako lehiaketak		1	1	2	2		3	
Grafikoen atari berria sortzea Euskadi.eus webgunean	-	ez	-	ez (aribidean)	-		Bai	
IVAPen plataformaren bidez emandako on-line ikastaroak	-	1	1	1	1		1	
Gasteizko eta Donostiako Udalen federazioa Open Data Euskadi-ko katalogoan	-	1	-	1	-		Bai	
SPARQL puntu bat ezartzea Open Data Euskadi-n	-		-	bai (1)	-		Bai	
Euskadi.eus webguneko grafikoen atarian argitaratutako grafikoen kopurua	-	0	5	0	10		20	
Datu irekien plan sektorialen kopurua	1	0	2	0	3		4	

Gasteizko Udala

Bizkaiko Foru Aldundia



## 2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna





## 2. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Plangintza estrategiko adimenduna

Proiektuaren izena <sup>1</sup>	Organo arduraduna	Aurreikusitako amaiera-data	Egoera	Balorazioa <sup>2</sup>
2.1. 2020-2025eko plangintza estrategikoa	DACIMA	2020-12-31	Zain <sup>3</sup>	Hobetzeko modukoa
2.2. Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak	Ekonomia eta Plangintzako Zuz.	2020-12-31	Aribidean	Erdipurdikoa
2.3. Esku-hartze publikoak ebaluatzeko sistema ezartzea	DACIMA	2020-12-31	Zain <sup>3</sup>	Hobetzeko modukoa

(1) Izen laburra. Ikus proiektu bakoitzaren fitxa osoa, txostenaren amaieran.

(2) Balorazio orokorra proiektuaren betearazpenari buruzko balorazioa da. Semaforoan kolore berdea, laranja edo urdina jarrita islatuko da. Bitarteko txostenean behin-behineko balorazioa soilik egin daiteke, noski, betiere proiektua amaituta ez baldin badago.

(3) Zain: Proiektua "stanby" egoeran dagoela esan nahi du, hau da, beste proiekturen baten edo aurrera egiteko erabaki esanguratsuren baten zain, esaterako.



## 2. ardatzaren helburuak. Plangintza estrategiko adimenduna

- Plangintza Estrategiko bat garatzen aurrera egitea, herriaren erronkak modu sistematikoan jorratu daitezzen, horiek modu eraginkor eta efizientean landu ahal izateko beharrezko aktiboak txertatuta.
- Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak, urte anitzekoak, edukitzea, baliabide ekonomikoak plangintza estrategikoarekin eraginkortasunez lerrokatze modua izan dadin.
- Zeharkako sistema korporatibo bat ezartzea, EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Administrazio Instituzionalean egiten diren esku-hartze publikoak aldi behin era sistematikoan ebaluatzeko.

## Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak 2. ardatzeko proiektuetan Plangintza estrategiko adimenduna

### 2.1. 2020-2025eko plangintza estrategikoa

- Zenbait bilera egin dira proiektuko 3 sail liderren artean.
- Proiektuaren bideragarritasunerako eta proiektuaren helburuak lortzeko faktore erabakigarri nagusia, hau da, Lehendakaritzaren, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren lidergoa eta lerrokatzea, ez da lortu, politika publikoen planifikazio eta ebaluaziorako antolaketa-ereduaren proposamenari dagokionez.

### 2.2. Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak

- "Politika publikoen eta ekonomia eta aurrekontuko esparruaren strategiari eta garapenari buruzko dokumentua" egin da.

### 2.3. Esku-hartze publikoak ebaluatzeko sistema ezartzea

- 2017an honako hauek egin dira: "Eusko Jaurlaritzako plangintza estrategiko adimendunaren antolakuntza-ereduaren proposamena: nor, zer eta nola"; eta "EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko politika publikoak planifikatu eta ebaluatzeko unitatearen sorrera justifikatzeko memoria".
- Zenbait bilera egin dira proiektuko 3 sail liderren artean.
- Proiektuaren bideragarritasunerako eta proiektuaren helburuak lortzeko faktore erabakigarri nagusia, hau da, Lehendakaritzaren, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren lidergoa eta lerrokatzea, ez da lortu, politika publikoen planifikazio eta ebaluaziorako antolaketa-ereduaren proposamenari dagokionez. Eredu



horren araberakoa da *PEGIP 2020ren* 2. ardatzeko gainerako proiektuen eta azpi-proiektuen betearazpena.



## 2. ardatzeko adierazleak: Plangintza estrategiko adimenduna

	2017		2018		2019		2020	
	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua
<b>2.1. 2020-2025eko plangintza estrategikoa</b>								
Plangintza estrategikoa ebaluatzeko prozedura berrikusi eta ezarri da	-	-	-	-	-	-	Bai	
Eusko Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Institutuzionalaren plangintza estrategikorako gidalerro orokorrak 2020-2025 aldirako	-	-	-	-	-	-	Bai	
Plangintza estrategikoa ekonomia- eta aurrekontu-plangintzari lotu zaio	-	-	-	-	-	-	Bai	
<b>2.2. Emaizetara bideratutako aurrekontu estrategikoak</b>								
Gobernu-ekintzarako ekonomia- eta aurrekontu-esparrua landu da	-	-	Bai	Bai	Bai	-	Bai	
Plangintza estrategikoari lotutako aurrekontu-plangintzaren prozedura berrikusi eta ezarri da	-	-	-	-	-	-	Bai	
Politika publikoen strategiari eta garapenari buruzko dokumentua, prest	-	-	Bai	Bai	Bai	-	Bai	
Urteko aurrekontu-proiektuari buruzko memoria, plangintza estrategikoari lotutako partidak identifikatuta (gobernuaren planak eta sailenak) eta Gobernu Programako Adierazle Sisteman ezarritako adierazleak txertatuta	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	-	Bai	-
<b>2.3. Esku-hartze publikoak ebaluatzeko sistema ezartzea</b>								
Politika publikoak ebaluatzeko unitatea sortu da	-	-	Bai	Ez	-	-	-	-
Politika publikoak ebaluatzeko atalean sortu diren eta sexua aintzat hartuta bete diren lanpostuen kopurua	-	-	3	0	-	-	-	-
Evalua sarea eta politika publikoak ebaluatzeko lankidetzeta-espazioa sortu dira	-	-	Bai	Ez	-	-	-	
Ebaluazioen ataria sortu da	-	-	-	-	Bai		-	
Politika publikoen ebaluazioan zeharkako aldaketa kudeatzeko ekintzen kopurua, sexua bereizita (metatua)	2	0	6	0	10		14	



### 3. ardatza. Herritarrekiko harremanak



### 3. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Herritarrekiko harremanak

Proiektuaren izena <sup>1</sup>	Organo arduraduna	Aurreikusitako amaiera-data	Egoera	Balorazioa <sup>2</sup>	KPI
3.1. Zuzenean garatu	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	
3.2. Interneteko presentzia	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	
3.3. Zerbitzu elektronikoaren eskaintza	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Erdipurdikoa	
3.4. Zerbitzu elektronikoaren erabilgarritasuna hobetzea	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa	
3.5. Herritarren karpeta	DACIMA	2020-12-22	Aribidean	Positiboa	

(1) Izen laburra. Ikus proiektu bakoitzaren fitxa osoa, txostenaren amaieran.

(2) Balorazio orokorra proiektuaren betearazpenari buruzko balorazioa da. Semaforoan kolore berdea, laranja edo gorria jarrita islatuko da. Bitarteko txostenean behin-behineko balorazioa soilik egin daiteke, noski, betiere proiektua amaituta ez baldin badago.



### 3. ardatzaren helburuak. Herritarrekiko harremanak

- Herritarrekiko interakzioaren kalitatea hobetzea interakzio hori gerta daitekeen edozein kanaletan, eta karga administratiboak murriztea.
- Herritarrekiko interakzio-zerbitzuen kudeaketa egokitzea administrazio elektronikoaren beharrian berrietara, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen ezarpenak ekarri baititu.
- Herritarrekiko interakzio-prozesuetan parte hartzen duten eragile guztien koordinazio egokia segurtatzea, bai maila transbertsal edo horizontalean, baita sail zein sektore mailan ere.
- Herritarrei zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateko eskubidea bermatzea.
- Zerbitzu publikoen erabilgarritasuna hobetzea, komunikazio argia erabiliz, herritarrek behar duten informazioa erraz aurkitu eta ulertu dezaten, eta izapidetze elektronikoko tresnak erraz eta efikaziaz erabiltzeko modua izan dezaten.
- Zerbitzuen erabiltzaileentzako arreta hobetzea, eta herritarren esku jartzea langile publikoek izapidetze elektronikoa abiatzeko puntu edo gune batzuk, bai eta informaziora eta izapidetze elektronikora iristeko puntu edo gune bakarrak ere.
- Elektronikoki izapidetzera behartuta dauden pertsonetikiko harreman elektronikoa erraztea.
- Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzeko berriazko beste ekintza batzuk identifikatzea eta hedatzea beste erakunde eta organo batzuekin elkarlanean.

## Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak 3. ardatzeko proiektuetan Herritarrekiko harremanak

### 3.1. *Zuzenean* garatu

- 2018. urtean, Erregistroak Trukatzeke Sistema jarri da martxan Eusko Jaurlaritzako Sailen Zerbitzu Zuzendaritza guztietan.
- *Zuzenean* zerbitzuaren hileroko txostenak eta eguneroko aginte-taula eguneratu dira.
- *Zuzenean* zerbitzuan jasotzen diren kexak, iradokizunak eta esker onak kudeatzeko sistema ere informatizatu da.

### 3.2. Interneteko presentzia

Euskadi.eus atariaren sarera egindako bisita-kopuruak gorantz jarraitzen du etengabe. 2019ko lehen sei hilekoko bisita-kopurua 30.916.334koa izan da, hau da, 2018ko aldi berean baino % 5,71



altuagoa. Era berean, bisitatutako webguneen kopurua ere igo da aldi berean; zehazki, % 4,96, eta 121.387.412ra iritsi da. 2019ko lehen seihilekoan gehien bisitatu diren hiru web-atariak Lanbide, Euskalmet eta Osakidetza izan dira.

Euskadi.eus-eko web-atariak bisitatzeko erabili diren gailuetan ere ikusi da bilakaerarik; izan ere, 2019ko lehen seihilekoan ordenagailuetatik egindako bisiten kopurua % 49,42koa izan da, hau da, 2018ko aldi berean baino % 4 baxuagoa. Hala ere, gailu mugikorretatik egiten diren bisiten kopuruak gorantz jarraitzen du, eta % 46,62ra iritsi da 2019ko lehen seihilekoan. Horrenbestez, 2018ko aldi berarekin alderatuz gero, % 5eko igoera egon da. Web-irisgarritasunean egon diren hobekuntzen ondoriozkoa da, neurri handi batean, bilakaera hori. Izan ere, Euskadi.eus-eko atarien sarean hainbat hobekuntza sustatu dira.

Halaber, www.euskadi.eus-eko atarien sare osoa HTTPtik HTTPSra migratu da, eta azpiegituraren web-zerbitzari eta komunikazioen alderdi teknologikoa eguneratu da. Onurak hainbat dira:

1. Herritarren segurtasun handiagoa Eusko Jaurlaritzarekin aritzean.
2. Web-presentzia interneteko berezko estandarretara egokitzea.
3. Euskadi.eus-en sareko webguneen posizioa hobetzea.

Eusko Jaurlaritza bere webgunea irisgarri egiteko lanean ari da, honen arabera: [1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa](#). Gaur egun, Web Irisgarritasuneko Behatokiaren arabera, Euskadi.eus bilakaera positiboa edukitzen ari da, eta partzialki bat dator 1112/2018 Errege Dekretuarekin. Salbuespena dira jarraian azaltzen diren alderdi hauek:

- Lotura batzuetan testuak ez dira aski deskribatzaileak edo esanguratsuak.
- Kasu batzuetan, zerrenden habiaraketa desegokiak antzeman dira.
- Aplikazio zahar batzuk daude, eta, horietan, script bidez programatutako elkarrekintza-elementu ez irisgarriak daude, edo ez dituzte formularioaren kontrolak markatzen kasuan kasuko etiketekin.
- Orri batzuetan, akatsak ageri dira CSS kodean, eta balidazio-akatsen bat agertu da HTMLn.
- Webguneren batean edizio-akats zehatzak egon litezke.

### 3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza

- 2018. urtean, *Zerbitzua Digitalizatzeko Plana (ZDP)* egin da *PEGIP 2020*ren indarraldirako.





- Digitalizazio-mailaren bilakaera (xedeko digitalizazio-maila lortu duten zerbitzu eta prozeduren ehunekoa):
  - o 2016-12-31: % **68,5**
  - o 2017-12-31: % **70,5**
  - o 2018-12-31: % **59,6**

2018an jaitsi egin zen, Zerbitzuen Katalogoan garbiketa-prozesu bat abiarazi baitzen. Katalogo hori da, hain zuzen ere, adierazle horiek eskuratzeko informazio-iturria.

- DACIMAk zuzendutako proiektuen bidez digitalizatutako prozedurak:
  - o 2017. urtea: **53**
  - o 2018. urtea: **115**

Eusko Jaurlaritzaren mendeko sailek, organismoek eta erakunde publikoek beren digitalizazio-proiektu propioak sustatzen dituzte.

### 3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea

#### a. Hizkera argia eta irakurketa erraza

- Irakurketa errazeko eta hizkera argiko prestakuntza-ekintzaren ikastaroaren pilotua martxan jarri da (IVAPeko eta Euskadiko Irakurketa Errazeko tutoreak):
  - o Datak: 2017ko iraila-2018ko ekaina
  - o 4 saileko 12 pertsona (teknikariak, legelariak eta web-kudeatzaileak) aritu dira lanean 6 programa desberdin hizkera argira egokitzeke.
  - o Hizkera argira egokitze aldera egindako lana herritarrekin egiaztatzeko edo balioztatzeke lehen saioa egin da Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeei laguntzeko Programan (2019ko otsaila). Saioan parte hartu dute ukitutako emakumeek, foru-aldundiko gizarte-hezitzaileek, gizarte-laguntzaileek, emakumezko biktimen eta desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak defendatzeko elkarteek...

#### b. Dokumentuak estandarizatzea eta normalizatzea

- Beken, laguntzen eta dirulaguntzen prozedura-familiako agirien txantiloak estandarizatzea.
  - o Diziplinarreko lantaldea, inplikaturako ikuspegi desberdinak kontuan hartuta:
    - Zuzendaritza/Koordinazioa: DACIMA
    - IVAPeko administrazio-hizkuntzako arloa.



- Arlo juridikoa: Bi legelari; horietariko bat Kontrol Ekonomikoko Bulegokoa.
- DACIMAKo zerbitzuen digitalizazioaren arduraduna.
- PLATEA Izapideak ataleko arduradunak (EJIE).
- Dagoeneko badaude txantiloak estandarizatuak honako agiri hauetarako: zuzentzeko errekerimendua, atzera egiteko ebazpena, dirulaguntza emateko ebazpena, laguntza ukatzeko ebazpena eta dokumentazio-errekerimendua.
- Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeei laguntzeko programan herritarrekin alderatzeko saio zehatz bat aurreikusi da (2019ko apirila), eredu horiek baliozkotzeko.

c. Herritarrentzako formularioak. Egindakoa:

- Eskari-formulario elektronikoko testuak, aginduak eta testuinguru-laguntza egokitu dira.
- Jakinarazpen eta komunikazioen sistema hobetu da.
- Formularioen datuak Excel-era esportatu daitezke.
- Zenbait hobekuntza egin dira funtzionamenduaren alderdi teknikoetan, erabilgarritasuna eta funtzionalitatea areagotu dira, eta formularioen segurtasuna hobetu da.

d. Egoitza elektronikoaren bilakaera. Egindakoa:

- Nabigaziorako egitura berria intuitiboagoa eta zuzenagoa da.
- Itxura bat dator Euskadi.eus-en diseinuarekin, eta atari berean integratuta dago.
- Edukiak eta testuak hizkera argira egokitu dira.
- Gailu mugikorretara egokitu da.

### 3.5. Herritarren karpeta

- 2017an eta 2018an, Nire Kudeaketak guztiz birdiseinatu da, eta, orain, Nire Karpeta izena dauka.
- Teknologia eguneratu eta diseinatzeko alderdiez gain, azpimarratzekoa da Nire Karpeta Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroarekin integratu dela, eta Nire Profila sortu dela. Hala, azken horrek erabiltzaileei aukera ematen die administrazioarekin komunikatzeko eta harremanak izateko datuak kontrola ditzaten.



### 3. ardatzeko adierazleak: Herritarrekiko harremanak

	2017		2018		2019		2020	
	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua
<b>3.1. Zuzenean garatu</b>								
Erabiltzaileen gogobetetasunaren indizea: <i>Zuzenean</i> -en arreta-zerbitzu telematikoaren kalitatea (www.euskadi.eus-eko postontzia)	% 70	Daturik ez	% 70	% 64	% 70		% 70	
Erabiltzaileen gogobetetasunaren indizea: <i>Zuzenean</i> -en arreta-zerbitzu telematikoaren kalitatea (Telegram-en bat-bateko mezularitza).	% 75	Daturik ez	% 75	% 77	% 77		% 75	
Erabiltzaileen gogobetetasunaren indizea: <i>Zuzenean</i> -en arreta-zerbitzu presentzial eta telefonikoa.	% 82	Daturik ez	% 82	% 87	% 82		% 82	
Erabiltzaileen gogobetetasunaren indizea: aurrez aurreko arreta jaso aurretik itxaron behar izan duten denbora	% 80	Daturik ez	% 80	% 82	% 80		% 80	
Erabiltzaileen gogobetetasunaren indizea: telefonoz arreta jaso aurretik itxaron behar izan duten denbora	% 81	Daturik ez	% 81	% 82	% 80		% 81	
Erabiltzaileen gogobetetasun-indizea: arreta eman zien pertsonaren argitasuna eta pertsona horri ulertzeko erraztasuna	% 86	Daturik ez	% 86	% 91				
Gaitutako funtzionarioen erregistroa, jarduteko prest	-	-	Bai	Ez				
Erregistroak trukatzeko sistema, martxan	Bai	Bai						
Erabiltzaileen gogobetetasun-indizea: kontsulta ulertu eta konpontzeko adeitasuna, prestaketa eta erraztasunak (aurrez aurre eta telefonoz)	-	-	-	-	% 70		% 70	
<b>3.2. Interneteko presentzia</b>								
Herritarrek Eusko Jaurlaritzaren web-atariekin duten gogobetetasun-maila	% 65	Daturik gabe	% 70	Daturik gabe	% 75		% 80	
Euskadi.eus-eko atariaren irisgarritasun-maila, Estatuko Administrazio Orokorreko Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak egindako behaketen arabera			9	9,2	9		9,5	
Interneteko bilatzaileen motorretatik euskadi.eus-era egindako bisiten urteko igoera			% 5	% 0,9	% 5		% 5	
Gailu mugikorretara egokituta dauden euskadi.eus-eko webguneen ehunekoa	% 65	% 70	% 75	% 75	% 90		% 100	
<b>3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza</b>								
Zerbitzu elektronikoen operatiboaren ehunekoa	% 80	70,5	% 90	59,6	% 95		% 100	



	2017		2018		2019		2020	
	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua
Administrazioan sartzekoan papera ordezkatu zaien espedienteen ehunekoa	% 40	% 20	% 60	% 25	% 75		% 90	
Administrazioan sartzekoan papera ordezkatu zaien prozeduren ehunekoa	% 10	% 5	% 20	% 8	% 50		% 80	
<b>3.4. Zerbitzu elektronikoaren erabilgarritasuna hobetzea</b>								
Hizkera argian idatzi edo irakurketa errazera egokitutako zerbitzuen/programen kopurua	0	0	6	4	8		10	
Kanpoko erabiltzaileen gogobetetasun-indizea: zerbitzu elektronikoak	-	-	% 60		-	-	% 70	
Hizkera argiaren (eta irakurketa errazaren) gaineko prestakuntza-ekintza arrakastaz garatu duten Eusko Jaurlaritzako pertsonen kopurua	-	-	12	9	9		18	
<b>3.5. Herritarren karpeta</b>								
"Nire kudeaketak" atalaren bertsio berria argitaratzea (plangintza)			Eginda	Bai				
Industriako atari profesionalarekin integratzea			Eginda	Ez				
Erabiltzaileen gogobetetasuna: zerbitzu elektronikoak	-	-	% 65		-	-	% 70	
Estatuko Administrazio Orokorraren herritarren karpeta-erakundearen integrazioa							Eginda	
Integrazio biguna Lanbiderekin ("Nire DSBE") eta Osakidetzarekin (Osasun-karpeta)			Eginda	Ez				



## 4. ardatza. Integritatea edo Zintzotasuna



## 4. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Integritatea edo Zintzotasuna

Proiektuaren izena <sup>1</sup>	Organo arduraduna	Aurreikusitako amaiera-data	Egoera	Balorazioa <sup>2</sup>
4.1. Etika kodea	Funtzio Publikoko Zuz.	2020-12-31	Aribidean	Positiboa
4.2. 1/2014 Legeko betebeharren kontrola	Funtzio Publikoko Zuz.	2020-12-31	Aribidean	Positiboa

---

<sup>1</sup> Izen laburra. Ikus proiektu bakoitzaren fitxa osoa, txostenaren amaieran.

<sup>2</sup> Balorazio orokorra proiektuaren betearazpenari buruzko balorazioa da. Semaforoan kolore berdea, laranja edo gorria jarrita islatuko da. Bitarteko txostenean behin-behineko balorazioa soilik egin daiteke, noski, betiere proiektua amaituta ez baldin badago.



## 4. ardatzaren helburuak. Integritatea edo Zintzotasuna

- "Etika eta jokabide onaren kodea" unean uneko premien arabera eguneratzea.
- Lan didaktikoak eta zabalkundekoak garatzea.
- Langileen Erregistro Zerbitzua digitalizatzea.
- Kargudun publikodunek beren betebeharrak eta eskubideak 156/2016 Dekretuaren arabera betetzea.

## Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak ardatzeko proiektuetan

### 4.1. Etika kodea

- Etikaren eta jokabidearen koderako atxikitako pertsonen zuzendutako prestakuntza-jardunaldien zikloa: "Etika publikoa Gobernu Irekiaren erronken aurrean" (2017ko ekainaren 14a); "Integritate instituzionala: kargudun publikoak, zuzendaritzako langileak eta funtzionarioak" (2017ko abenduaren 20a).
- Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen 2017ko memoria argitaratu da. Horren bidez, Batzordeak garatutako jardueren berri eman da publikoki (2018ko iraila).
- Etikaren eta jokabidearen koderako atxikitako pertsonen zuzendutako jardunaldien zikloa: "Erakunde publikoetako integritate-arriskuen ebaluazioa" (2018ko iraila).
- Eusko Legebiltzarrari txosten bat bidali zaio, honako azterketa hau bertan bilduta: kargu publikodunek noraino bete dituzten ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituenak) ezarritako betebeharrak (2019-01-25).
- Erabakia, zeinaren bidez aintzat hartzen baitira Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak egindako gomendioak, eta haiek martxan jartzeko neurriak hartzen baitira (2019-02-26).

### 4.2. 1/2014 Legeko betebeharren kontrola

- Langileen Erregistro Zerbitzua sortu da (2016). Hornidura: zerbitzu-burua, teknikari juridikoa, antolaketa-teknikaria, administrariak (3), administrari informatikoak (3).



- Martxan jarri da “goi-mailako zuzendaritza exekutiboa”, kolektiboarekin harreman digitalak edukitzeko “langileen atariaren” barruan; atariak informazio zehatza eta izapideak egiteko aukera eskaintzen ditu (2017).
- Langileen erregistro-zerbitzuko plantillaren hazkundera (2018): teknikari informatikoak (2).
- Agindua, 2018ko abuztuaren 2koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideei buruzko dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari alde aurreko onarpena ematen diona.
- Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen lanpostuen katalogo eguneratua, Jaurlaritzaren konpromiso hau betetze aldera: gardentasun gorenari, publizitate aktiboari eta herritarrek erantzukizun publikoa duten lanpostuei buruzko informazioa jasotzeko duten eskubideari lotua. (2019-03-26)
- Sei hilean behin txostenak egin dira (2017-2019).





## 4. ardatzeko adierazleak: Integritatea edo Zintzotasuna

	2017		2018		2019		2020	
	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua	Xedea	Datua
<b>4.1. Etika kodea</b>								
Egindako jardunaldi didaktikoen kopurua, guztira	2	2	2	1	2		2	
Etikaren eta jokabide onaren kodea eguneratu da	-	-	-	-	-	-	Bai	
Kargu publikodun langileek bere betebeharrak eta eskubideak 156/2016 Dekretuaren arabera betetzea: jarraipen-txostenak, ez-betetzeak jaso gabe	2	2	2	2	2		2	
<b>4.2. 1/2014 Legeko betebeharren kontrola</b>								
Langileen Erregistro Zerbitzuaren sei hilean behingo txostena argitaratuak	2	2	2	2	2		2	
Langileen Erregistro Zerbitzuaren digitalizatzeko-maila	% 95	% 95	% 100	% 95	% 100			



## 5. ardatza. Berrikuntza



## 5. ardatzeko proiektuen egungo egoera. Berrikuntza

Proiektuaren izena <sup>1</sup>	Organo arduraduna	Aurreikusitako amaiera-data	Egoera	Balorazioa <sup>2</sup>
5.1. Berrikuntza herritar eta profesionalekin	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Erdipurdikoa
5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin	DACIMA	2020-12-31	Aribidean	Positiboa
5.3. EAEko Administrazioaren analisi prospektiboa	DACIMA	2020-06-30	Ez da hasi	Hobetzeko modukoa

<sup>1</sup> Izen laburra. Ikus proiektu bakoitzaren fitxa osoa, txostenaren amaieran.

<sup>2</sup> Balorazio orokorra proiektuaren betearazpenari buruzko balorazioa da. Semaforoan kolore berdea, laranja edo gorria jarrita islatuko da. Bitarteko txostenean behin-behineko balorazioa soilik egin daiteke, noski, betiere proiektua amaituta ez baldin badago.



## 5. ardatzaren helburuak. Berrikuntza

- Lankidetzaren espazio transbertsalak sustatu, sortu eta mantentzea.
- Profesional publikoek *PEGIP 2020ren* berrikuntza-proiektuetan parte hartzea.
- Herritarren parte-hartzea lortzea zerbitzu publikoen eta berrikuntza publikoko proiektuen kudeaketaren fase batean edo batzuetan.
- Proiektuen garapena sustatzea (kasu hauetan, laguntza publikoa izan daitezke: finantzatzea, sareak sortzea, esperimendatzeko ingurumenak sortzea...), analisi kritikoa eragiteko emaitzaren arabera neurtzen diren berrikuntza-prozesuetatik inpaktua neurtuko zaien berrikuntza-prozesuetara igaro ahal izateko moduari buruz.
- BSIrekin elkarlanean, Euskadiren berrikuntza sozialerako ekimen nagusiak identifikatu daitezela sustatzea, sareko lantaldeak sortzen lagunduz eta berrikuntza sozialerako ekimen publikoak eta pribatuak bultzatuz.
- Erakundearteko lantalde bat, ideiak emango dituen etorkizuneko gizarte-ereduari buruzko eta administrazio-eredu berriei buruzko jardunaldi batzuk antolatzeke, amaierako dokumentua gizarte-eragileekin eta politikariek sozializa dadin.
- Administrazio-eredu bat proiektatzea: antolamendua, egitura eta kudeaketa-moduak.

## Gertaera, produktu eta lorpen esanguratsuenak ardatzeko proiektuetan

### 5.1. Berrikuntza herritar eta profesionalekin

1. Elkarrekin ikasteko, lankidetzan aritzeko, sarean antolatzeke eta berrikuntzarako lankidetzaren espazio profesionalak, orain arte *PEGIP 2020ren* testuinguruan sortuak:

2017ko espazioak:

- Dokumentuak estandarizatu eta normalizatzeko taldea
- OGP-Gobernu Irekiaren eredu euskalduna
- Hizkera argi eta irakurketa errazeko pilotua

2018ko espazioak:

- Datuak Babesteko Batzordea



- Prozedurak eta Zerbitzuak Digitalizatzeko lankidetzak-espazioak\*:
  - ZD Toki Administrazioako funtzionarioen lanpostuak betetzeko lehiaketa unitarioa
  - ZD Ertzaintzako diziplina-espeditentak
  - ZD Karrera Judizialeko laguntzak
  - ZD Kontsumitzaileen Erakundearen Errolda
  - ZD Irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeko
  - ZD Ikastetxe pribatuen baimena
  - ZD BGAE erregistroa

\*Nahiz eta badagoen SharePoint espazio bat bakoitzarentzat, bakartzat jo da **Zeharkako lankidetzak-espazio berrien kopuruaren** adierazlean. Lekuak txantilo baten arabera sortu dira; zeharkako organoen aldetik (DACIMA; EJE; Artxibo Orokorra) parte hartzen duten pertsonak berberak dira, baina sailen partaideak eta EJEren laguntza teknikoko partaideak aldatzen dira.

## 5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin

